

ELKARRIZKETA: BEGOÑA IBARROLA • EKARPENAK: ARNO STERN •
GALDEIDAZUE: ALFREDO HOYUELOS • HEZKIDETZAZ: BLOGAK • EUSKAL
EKOMUSEOA • ATZEKO ATETIK: ANDONI AGIRREGOMEZKORTA

hh
hik hasi

135

4 EURO • 2009KO OTSAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Software askea eskolan

Etika teknologikoari atek zabaltzeko garaia


...irakurtzea gustatzen zait, eta zer?



5
URTETIK
Aurrera



13
URTETIK
Aurrera



8
URTETIK
Aurrera



7
URTETIK
Aurrera



12
URTETIK
Aurrera



aurkibidea



8
gaia

SOFTWARE ASKEA ESKOLAN

ero eta gehiago dira Euskal Herrian software askea erabiltzen duten ikastetxeak. Aldaketak sortzen dituen beldurak uxatuta, aurrera egin dute askok eta pozik daude maitzarekin. Etika teknologikoa ikasgeletan sartu da eta ainbat balio aintzat hartuz, balio horien lanketari bultzada eman dio.



16
elkarrizketa

BEGOÑA IBARROLA

psikologoa eta adimen emozionalean aditua da Begoña Ibarrola, eta hamahiru urte daramatza gurasoei eta irakasleei adimen emozionalako ikastaroak ematen. Adimen emozionala eta emozioak kudeatzen ikasteko gaitasunak lantzen dituzte ikastaro horietan.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

SOFTWARE ASKEA ESKOLAN

ETIKA TEKNOLOGIKOARI ATEAK ZABALTZEKO GARAIA

16 elkarrizketa

BEGOÑA IBARROLA

24 ekarpenak

Arno Stern

26 ekarpenak

Gure gela lau pareta baino gehiago

28 hezkidetzaz

Sexu hezkuntza

30 galdeidazue

Nola ikustarazi dakieke gurasoei haur eskolek betetzen duten funtzio asistentzialaz gain, haien funtzio hezitzaileak garrantzi handia duela?
Alfredo Hoyuelos

33 berriak

40 nora joango gara?

Euskal Ekomuseoa

Euskal Herria pixka bat gehiago ezagutu nahi?


42 Atzeko atetik

Andoni Agirregomezkorta

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Arantxa Urbe, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANITZA S.A.L. Azaleko irudia: Ordiziko Jakintza ikastolako ikasleak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2009-1-23). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

Harpidetza orria



hik hasi_k zure parte-hartzea ezinbestekoa du, harpide zaitez! 50 euro urtean

Prezio horren barruan 10 aldizkari, ale monografikoak eta Euskal Herriko baliabide pedagogikoen gida. Horrez gain, prezio bereziak Udako Topaketetan eta argitararaten ditugun gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonia

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala otsaila

Matrikulatzeko garaian, zer aurkeztu?



Eskola bakoitzak, ikastetxetalde bakoitzak, sare bakoitzak, administrazio bakoitzak bere eskaintza egingo du, zer eskain litekeen garbi ez badago ere.

Eskolatzen hasteko edo jarraitzeko, izena emateko epea irekitzera doa EAEn, eta ondoren, Nafarroako eta Iparraldeko eskaintzak etorriko dira.

Eskola bakoitzak, ikastetxe-talde bakoitzak, sare bakoitzak, administrazio bakoitzak bere eskaintza egingo du, zer eskain litekeen garbi ez badago ere.

Izan ere, EAEn, hizkuntzen marko berria proposatzen zuen legea mahai-gaineratu zen eta ez zuen aurrera egin.

Nafarroan, aldian-aldian, hizkuntza "eredu" berri bat ateratzen du bertako Gobernuak txisteratik: Hello Haur Eskolak (ingelese + gaztelania), British (ingelese + gaztelania) dela, HTI edo TIL Hizkuntzen Tratamendu Integratua (ingelese orduak jarritz)...

Iparraldean, bestalde, eragina du Frantziako Gobernuak hezkuntzari laguntzak murrizteko eta irakasle kopurua jaisteko daraman politikak, ikasleen eta langileen mobilizazioek prozesua atzeratzea lortu badute ere,

oraingoz. Afera horiek guztiak nola amaituko diren ez dakigula, ikasleen matrikulazioa egiteko kanpainak abiatu dira, jada, edo laster abiatuko dira.

Eta zer esan curriculumari buruz? Estatu bakoitzak berea ezartzen du, Erkidego bakoitzak bere parte moldatzeko aukera ere badu, Eskola bakoitzak bere zatiari dagokiona, eta herri bezala, Euskal Herri bezala, lantzen ari den Euskal Curriculumua. Hori guztia garatzen ari den bitartean, eskoletan aztertzen ari denean, elkarrekin, jendarte hartzaz ari denean, zer eskain diezaiokete eskolak matrikulatzera doanari?

Bada beste arlo bat eskola bakoitzean zuzen-zuzenean eragiten duena: hezkuntza eredua edota pedagogia ildoak dei daitekeena. Hezkuntza kompetentzia orokorrak garatzea ezartzen daildo nagusi gisa. Hala ere, kompetentzien ideia bera modu desberdinean interpretatzen ari da, eta praktika zeharo kontrajarriak antzematen dira.

Ikasle berrien izena emateko garaian, hori guztia kontuan hartzea me-rezi du, nola ez.

Aipatu hiru arloek osatzen dute eskola edo ikastola bakoitzeko Hezkuntza Proiektuaren funtsezko zutabeak, antolaketa eta parte hartzearekin batera. Horregatik, Hezkuntza Proiektua ez da egun bateko gauza, urteetan eraikitzen, garatzen eta gauzatzen den egitasmoa baizik.

Aurrekoa gogoan hartuz, eskolatzeko orduan, eskola bakoitzaren ibilbidea kontuan hartzea komeni da: han egiten denak herritarrak kohesionatzeko balio duen, ikasleen aukera berdintasunean laguntzen duen, buru eta jarrerara malguak sortzen dituen, irizpide propioa duten pertsonak bideratzeko balio duen, mundu globalizatuan bizitzeko balio duen, eta, herri bezala, gure kulturaren oinarrituz eta hura garatuz munduko gertakizunak irakurtzeko, interpretatzeko eta etorkizuna hobetzeko laguntzen ote duen.

kronika

Eusko Jauraritzak Haur Hezkuntzaren curriculuma finkatzen duen dekretua onartu du. Zehaztasunik ez dute eman, baina Hezkuntza Sailaren web gunean dekretuaren zirriborroa aurki daiteke, eta bertan esaten denez, ikastetxeek elebitasuna bermatzeko baldintza egokiak bultzatu beharko dituzte. Dekretua, Haur Hezkuntzako bi zikloak eskaintzen dituzten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetan aplikatuko da. Behin Haur Hezkuntzaren curriculuma onartuta, Batxilergoaren curriculuma onartzea falta da orain.



Hizkuntza eredu erreforma onartu gabe amaituko da legegintzaldia

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe publikoetan eta itunpeko eskoletan, A, B eta D ereduak jarraituko dute indarrean, oraingoz. *Euskal Autonomia Erkidegoan Hizkuntza Ofizialak Ikasteko, Irakasteko eta Ebaluatze-ko Markoa* izeneko lege egitasmoaren inguruan adostasunik ez da egon azkenean ez alderdien artean, ezta Eusko Jauraritzako hirukoaren barnean ere, eta proiektua ez da Eusko Legebiltzarra iritsi. Hizkuntza ereduaren erreformaren kontra kritika gogorrak izan dira baina hirukoaren barnean EAJk jarri ditu oztoporik handienak; izan ere, eskola orduen % 60 gutxienez euskaraz izatea gehiegi iruditzaie eta atzerriko hizkuntzari eta gaztelaniari zein toki ematen zaien gainbegiratu beharra azpima-

rratu izan dute behin eta berriz.

2007ko martxoan aurkeztu zituen Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak ereduaren erreformaren ildo nagusiak eta 2008ko udan ardatz nagusiak negoziatzen hasi ziren hezkuntza eragileekin, sindikatuekin eta alderdiekin. Guztiekin hitz egin ondoren, proposamenaren bertsio berria aurkeztu zuten baina horrek ere ez du aurrera egin. Beraz, martxoko hauteskundeetan Hezkuntza Saila hartuko duenaren esku egongo da egitasmoa.

Hizkuntza ereduaren erreformaren ardatzak hauek dira:

Helburua: Derrigorrezko eskolaldia amaitzean, bi hizkuntza ofizialetan "erabiltzaile independente" izan behar dute ikasleek.

Euskara: Irakasgai ez linguistikoaren % 60k euskaraz izan beharko du gutxienez. Eskolek erabakiko dute gainekoak zein hizkuntzatan eman.

Hizkuntza proiektua: Ikastetxeek hizkuntza proiektua egin behar dute legearen helburua lortzeko.

Aplikazioa: Legea onartu ondoren, lau urteko trantsizio epea.

Hitzarmena: Helburuak betetzen ez dituzten itunpeko ikastetxeek ez lukete hitzarmena galtzeko arriskurik izango azken testuaren arabera.

Ebaluazioa: hizkuntza gaitasunak modu berezian ez ebaluatzea erabaki dute.

Ezagutza zientifikoa eta teknologia humanismo modernoaren ezinbesteko osagarriak dira

Pedro Miguel Etxenike



Berria

Darcos erreformaren aurkako mobilizazioek aurrera jarraitu dute

“Hezkuntza ez da salgai” lelopean hainbat mobilizazio izan dira urtarri-lean Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Xavier Darcos Frantziako Hezkuntza ministroak bultzatu duen erreformaren kontra protesta egin dute ikasleek, irakasleek eta gurasoek, Gabonetako oporraldiak ekarri zuen etenaren ondoren.

Xavier Darcos Frantziako Hezkuntza ministroak erreforma atzeratu izana, mobilizazioak geldiarazteko neurri gisa hartu dute ikasleek, irakasleek eta gurasoek, eta mobilizazioekin aurrera jarraitzeko asmoa agertu dute. Ikasleek ez dute onartzen Frantziako gobernuak 13.000 lanpostu kentzeko duen egitasmoa,

eta “hezkuntzaren merkantilizazio bidean” doan unibertitate erreformaren aurka azaldu dira. Gainera, lizeo mailan hainbat eskaintza desagertuko dira erreformaren eraginez, eta Lanbide Heziketaren kasuan, prestakuntza lau urtekoa izatetik hiru urtekoa izatera pasatuko da. *Carte scolaire* delakoa desagertuz, bestalde, lizeo txiro eta aberatsen arteko aldeak orain arte baino handiagoak izango direla uste dute ikasleek. Era berean, ikasleen fitxategiak sortzeko ekimenaren kontra daude ikasleak, izan ere, Kanbon, esaterako, mobilizazioetan parte hartu duten gazteen zerrendak osatu dituzte hainbat zuzendarik eta Hezkuntza Ikuskaritzari igorri dizkiete.

Gauzak horrela, Gabonetako oporraldiaren ondoren protestek aurrera jarraitu dute. Abenduan izandakoak baino apalagoak izan dira, baina aurrerantzean ere mobilizazioekin jarraitzeko asmoa agertu dute, eta erreforma guztiz baztertu arte horrela jarraituko dutela esan dute ikasle batzordeek zein sindikatuek.

Gogora dezagun, protesten eraginez Darcosek erreforma atzeratu duela, eta, ondorioz, datorren ikasturtean ez dela indarrean sartuko, baina ekimenarekin aurrera jarraitzeko asmoa erakutsi du ministroak.

Eusko Jaurlaritzako

Hezkuntza Sailak 353 milioi euro

bideratuko ditu itunpeko

ikastetxeak finantzatzeko,

Gobernu Kontseiluak joan den

urtarrilaren 20an horrela

onartuta. Hezkuntza Saila eta

itunpeko ikastetxeetako

ordezkariak finantziazioa

negoziatzen ari diren unean etorri

da onarpena. Sindikatuek

hitzarmen kolektiboa berritzea

eskatzen dute alde batetik, eta

bestetik, ordutegiak eta soldata

sare publikoko langileenekin

parekatzea. Ikasturtean zehar

hainbat mobilizazio egin dituzte

sindikatuek eta hil honetan,

otsailean, ELA sindikatuak hiru

greba egun deitu du Kristau

Eskoletan.

GAIA

Software askea eskolan

*Etika teknologikoari ateak
zabaltzeko garaia*





Informatika, aplikazio-eremua edozein delarik ere, erronka eta aukerez josia aurkezten zaigu, beti. Euskal hezkuntzak ere, beraz, informatika ikastetxeetan txertatzearen eta bere aukerak profitatzearen erronka garrantzitsuari erantzun behar izan dio orain arte. Eta, jakina, baita etorkizunean ere. Informatikaren mundua, ordea, hainbat modutara uler daiteke eta aukeraketa hori egitea ere erronken artean dago, printzipio teknologikoak baitaude jokoan.

G

Teknologiaren aukeraketa irizpide pedagogiko, linguistiko eta sozialak aplikatu behar al dira?



Iratxe ESNAOLA ARRIBILLAGA
INFORMATIKAN INGENIARIA ETA UNIBERTSITATEKO
IRAKASLEA

Informatika bizitzako esparru guztietan presente dago. Eta presente dagoelako, dena beste modu batera egiten dugu. Ia konturatu gabe barnerratu dugu, gainera, funtzionatzeko modu berri hori. Informatikak, IKTek eta Internetek, oro har, komunikatzeko modu gehiago sortzea ahalbidetu dute, lana egiteko modua eraldatu dute eta, jakina, ikasteko eta irakasteko modua aldatu dituzte.

Belaunaldi berriak informatikarekin jaioko dira, horrekin haziko dira. Eta horrekin haziko direlako, horrekin heztea ere hezkuntzaren ardura bilakatu da. Egun, teknologiak erronka gisa planteatzen diren garaiotan, informatika ikastetxeetan txertatu eta teknologiak modu bizian erabiltzea lortu behar da, baina txertatze hori pedagogikoa izatea nahi badugu eta erabilera biziak arduratsua izan behar badu, ezinbestekoa da teknologien nolakotasuna aztertzea. Alegia, edozein teknologia mota erabil al daiteke, teknologia delako soilik? Edo aukeratu egin behar da, eta teknologien aukeraketa horretan, besteak beste, irizpide pedagogiko, linguistiko eta sozialak aplikatu behar al dira?

Hezkuntza-guneetan eta beraue-tatik kanpo, gero eta leku handiagoa beteko duten tresnak dira teknolo-

giak. Teknologiak, beraz, tresna hutsak dira. Aplikazio edo programa bakoitzak funtzio bat edo gehiago bete-ko ditu eta ikasgai batean edo gehi- gotan erabili ahal izango dira. Fun- tzionalitate hutsetik haratago, ordea, tresna horiek garatzeko moduak, eta behin garatuta, horiek banatzeko mo- duak desberdintzen ditu bata bestea- rengandik. Alegia, funtzionalitate ter- minoetan, bi aplikazio berdinak izan daitezke, baina programa hori gara- tzeko modua eta banaketarako erabi- litako irizpideak, printzipio teknolo- giko ezberdinetan oinarri daitezke. Eta horregatik, erabiltzen den tekno- logia motaren arabera, ikasle pasibo edo aktiboagoak sortu, ikasleen ja- kin-mina eta pentsamendu kritikoa areagotu eta elkartasun balioa trans- mititu daitezke.

Zentzu horretan, software librean garatutako programek elkartasunean oinarritutako etika teknologikoa apli- katzen dute. Programen atzean dago- en iturburu-kodea irekia mantentzen da. Ikus daiteke, aztertu, aldatu, ho- betu. Besteek egindakoa oinarritzat har daiteke, besteek egindakotik ikas daiteke, betiere iturburu-kodea uler- tzeke ezagutza nahikoa badugu. Mo- du horretan, atzerriko ikastetxe bate- rako garatutako programak, gure egin ditzakegu, gure beharretara egokitu eta euskaratu, inori baimenik eskatu gabe. Gure egin eta aldatu duguna gainerakoentzat eskuragarri uztea da baldintza bakarra.

Teknologiak beraz, ezinbesteko- ak dira euskal hezkuntzan ere. Baina dena ez da zilegi: etika teknologikoa aplikatuz euskarazko tresnak erabi- ltea oinarri eta helburutzat hartu be- harko litzateke eta, hori, software li- brearen eskutik soilik egin daiteke.

Jokin Lacalle: "Gure eskola ereduan partekatzea balio garrantzitsua dela transmititu nahi diegu ikasleei"

Ordiziko Jakintza ikastolako irakaslea da Jokin Lacalle eta zortzi urte egingo ditu laister IKTen esparruan lanean. Azken lau urteetan hasi da software askea erabiltzeak duen garrantziaz jabetzen eta, ondorioz, ikastolan erabiltzen. Ikastolako bloga martxan jarri behar zutenean hasi zen ibilbidea, orduan konturatu ziren *Wordpress* izeneko aplikazioak eskaintzen zituela aukerarik onenak. Aurrez zituzten errezeloak eta aitzakiak alde batera utzi eta, duela bi urte inguru, Mikel Etxarri lankidearekin batera *Ubuntu* probatzera ausartu zen. Gainera, *Firefox*-ekin batera, *OpenOffice*, *Thunderbird*, *The Gimp* eta antzekoak erabiltzen hasi ziren. Lanean buru-belarri aritu dira azken urteetan eta ikastola osoan software askea erabiltzeko migrazio prozesua 2010ean amaitzea espero dute. Software askea bat dator ikastolaren filosofiarekin, eta partekatzea bezalako balioen garrantzia azpimarratu nahi diete ikasleei.

Noiz hasi zineten lanean software askearekin Jakintza ikastolan?

Duela lau urte, ikastolako bloga martxan jarri behar genuela eta, hainbat aplikazio probatu ondoren, *Wordpress* izeneko aplikazioak aukera oso onak eskaintzen zituela jabetu ginen. Ordu asko pasa behar izan genituen laguntza foroetan, aplikazioaren garapenearekin zerikusia zuten albisteak jarraitzen eta abar. Horrela *Opensource* ko-

munitatearen lan egiteko modua ezagutu genuen. *Creative Commons* lizentziak, *Wikimedia* eta *Mozilla Fundazioak*, edota bestelako *Opensource* web aplikazioen (*Joomla*, *Drupal*, *Mediawiki*, *Moodle*...) gaineko informazioa bildu genuen. Web mailan erabiltzen ziren aplikazio nagusiak lizentzia askekoak zirela ikusi genuen eta *Opensource* komunitateak egindako lanari esker garapen maila altukoak zirela, gu bezalako profil tekniko baxuko erabiltzaileentzat aplikazio erabilerrazak zirela eta, era berean, oso indartsuak zirela. Webean hain garbi ikusten genuena ez ote zen ere aplikazio lokalekin, alegia, ordenagailuetan instalatu behar diren programekin gertatuko? Azken bi urtetan hasi gara *GNU/Linux* distribuzioak aztertzen. Une honetan irakasle guztiarentzat zabalik dagoen *Wordpress*-en oinarritutako blog plataforma dugu martxan; horietako askok *Moodle* erabiltzen ari dira; ikasle eta irakasle guztiak dagoeneko *Firefox* eta *OpenOffice* normaltasunez erabiltzen dituzte eta, laister emango dugu *Ubuntu*-rako saltoa.

Beraz, pixkanaka ikastetxe osora zabaltzen ari zarete software librearen erabilera...

Irakaskuntzan, aldaketa pedagogikoak oso astiro gertatu ohi dira baina IKTak gure lanbidera heldu direnetik, gauzak beste erritmo batera doazela dirudi. Horrek arrisku handia du, izan ere, ezin dugu ahaztu irakasle askoren alfabetizazio digitala ez dela puntapuntakoa, eta aldaketa horiekin itola-



ria sentitzen dute askok. Beraz, ezinbestekoa da tentuz jokatzeko, eta aldatzeko eta lankideen esku ipiniko ditugun tresnak aurrez ongi aztertzea.

Zergatik egin zenuten software askearen aldeko apustua?

Jakintza ikastolan 1996. urtean heldu zitzaion kalitatearen kudeaketari, eta ordutik hona praktika on asko partekatu ditugu. Hori are eta nabarmenagoa egin zen IKTen etorrerarekin. Bat-batean, gure lana zabaltzeko modu errazak eta eraginkorrak ezagutu genituen eta, gure esperientziak edota sarean zehar bildutako informazioa ikastolatik kanpo partekatzeko aukera erraza genuela ikusi genuen. Esperientziak trukatu, informazioa partekatu, elkarlanean oinarritutako ekimenetan parte hartu... Horiek guztiak gure izaerarekin bat datozen ezaugarriak dira. Beraz, konturatu gabe, baina, gure egunerokotasunean, beti izan dugu *Opensour-*



cefilosofia oso barneratuta.

Tamalez, aurretik sekula ez nintzen konturatu erabiltzen ari ginen software mota izpiritu horrekin, gurea bezalako hezkuntza erakunde batek zabaldu behar dituen balioekin kontraesanean zegoela. Baina 2007ko irailaren 15ean sinatu zen "Hezkuntza Irekiaren aldeko Lurmutur Hiriko Aitorpena" irakurri nuenean, zeharo aldatu nuen ikuspegi hori. Oso identifikatuta sentitu nintzen bertan adierazten zenarekin. Eskola irekia gara, baina ez soilik ideiak, informazioa edota proiektuak partekatzen edota elkarlanean garatzen ditugulako. Asko dira besteen esku uzten ditugun baliabide eta materialak, eta horiek benetan irekiak izatea nahi badugu, erabiltzen ditugun bitartekoak (aplikazioak, alegia) eta lizentzia motak beraztertzea ezinbestekoa zela ikusi nuen. Orduan konturatu nintzen software askea erabiltzeak duen garrantziaz eta hori izan zen honen guztiaren abiapuntua.

Hortik aurrera, informazioa bilatzen, *OpenSource* mundua ezagutzen, esperientziak bilatzen eta horietatik ideiak ateratzen, aplikazioak erabiltzen... hasi ginen, eta ibilbide horretan, software askea erabiltzearen aldeko arrazoi ugari daudela konturatu naiz. Horietako batzuk hezkuntzaren xedarekin dute harremana; beste batzuk alderdi etiko edo filosofikoekin, lege kontuekin zerikusia dutenak ere badira tartean, eta baita alderdi ekonomikoa ukitzen dutenak ere. Baina gutxitan aurkitu dut software askearen aldeko argudio teknikorik, hau da, "software askeak pribatiboak baino kalitate handiagoa du" esaten duenik. Azkenaldian, dena den, gauzak aldatu direla iruditzen zait. Alde batetik, software askeak bilakaera ikaragarria izan du. Garbi esan behar da gaur egun, punta-pun-

tako aplikazio askok lizentzia askea dutela. Bestalde, Microsoft etxeak azken produktuak kaleratzean erabaki estrategiko oker batzuk hartu izanak ere aukera askeak erabiltzea erraztu du. Gainera, sarean gertatutako aldaketan ondorioz, lokalean instalatutako aplikazioekiko menpekotasuna murrizten joan da eta *GNU/Linux* sistemeekin bateraezinak ziren aplikazioen zerrrenda murriztu da. *Web 2.0*-ren itzalean ere, lankidetzeta eta komunikazioan iraultza handiak gertatu dira. Horri esker, gure arazoei irtenbidea aurkitzea errazagoa bihurtu da.

Eta zer lortu nahi duzue software askearen erabilerarekin?

Gure ikasleei eta irakasleei euren lana modu errazagoan eta eraginkorragoan egiten lagundu nahi diegu. Euskara hutsean egongo diren kalitatezko aplikazioak erabiliz lanean pasatuko duten denborari etekin hobea ateratzen lagundu nahi diegu; euskarazko tresnekin lan eginez eraginkorragoak izaten lagundu, alegia.

Bestalde, erakunde ofizialetatik bultzatzen ari diren kanpainak zabaldu nahi dituzten ideia faltsuen aurrean, gure ikasleei ondorengo ideia helarazi nahi genieke: "Legala izateko, parteka ezazu!". Era berean, "Partekatzerakotan, izan zaitez legala!" mezua ere helarazi nahi diegu. Gure eskola eremuan partekatzea balio garrantzitsua dela transmititu nahi diegu ikasleei. Eskatu, erabili, kopiatu, zabaldu... software askea nahi duzunarekin nahi duzunean, zure eskubidea da.

Hitzetik ekintzetara pasatu nahi dugu. Asko hitz egiten da software askeak dituen onurei buruz, baina erabiltzera ausartzen direnak ez dira hainbeste. Irakaskuntzan mesfidantza puntu bat bada oraindik eta inguruko en espe-

rientzien eta erreferentzien zain gertzen dira, bide horretan aurrera egin baino lehen. Dinamika horrekin hautsi behar dela uste dut eta gure esperientziak horretan lagun badezake, aurrera.

Nola ari zarete gauzatzen prozesua?

Sare osoaren software askerako migrazioa hiru fasetan planifikatu genuen. Lehen fasean, gure proposamenaren ardatz nagusiak azaltzen zituen dokumentua prestatu genuen, zuzendaritza taldeari aurkeztu genion eta etapa guztietan eztabaidatu zen. Klaustroak proposamenari oniritzia eman eta 2008ko ekainean aurrera egitea erabaki zuten.

Bigarren fasea, ikasturte honetan burutzen ari gara. Bi zeregin nagusi aurreikusten genituen: alde batetik, sareko ekipo guztietan *Windows*-en pean funtzionatzen duten software askeko aplikazioak erabiltzea eta, bestetik, datorren ikasturterako proposatzen dugun sistema eragilean aldaketa egin aurretik, azterketa egin eta sor daitezkeen arazoan aurrean zer egin dezakegun baloratzea. Horrela, irailtik hona ikastolako irakasle eta ikasle guztiek *OpenOffice*, *Firefox* eta *Gmail*-eko korreo kontuak erabiltzen hasi dira. Eta helburu nagusia, aplikazio horiekin trebatzea da, datorren urterako proposatzen ditugun aldaketetarako prest egon daitezen. Datozen sei hilabeteetan, sareko elementu fisiko guztien inventarioa egingo dugu, egon daitezkeen bateragarritasun arazoak identifikatu eta horiek konpontzeko egon daitezkeen aukerak baloratu. Gauza bera egin beharko dugu irakasleok erabiltzen ditugun aplikazio espezifiko guztiekin.

Eta, hirugarren faseari datorren

Esperientziak

ikasturtean helduko diogu. Dena ongi badoa, datorren urtean ikastolako zerbitzari eta ekipo guztietan GNU/Linux-en oinarritutako sistema eragileak izango ditugu. 2010erako ikastolako sare osoa aplikazio askeekin funtzionatzen izatea espero dugu.

Bidean topatu al duzue arazorik?

Araza teknikorik ez dugu izan, apenas. Garai bateko software askearen mito beltzarekin (erabiltzeko zailgia dela, arazo ugari ematen duela, ordaindutako aukerak baino kalitate kaskarragoa duela...) amaitu beharra dago. Aplikazio horiek erabiltzearen arrazoi nagusia ez da ekonomikoa, kalitatearen aldeko apustua egiten dugu. *Firefox*, *OpenOffice* eta *GMail* bezalako aplikazioak merkatuan dauden onenak dira, eskaintzen duten egonkortasun, zerbitzu gehigarri eta duten sostengu teknikoarengatik.

Arazoak beste esparru batzuetatik datozkigu. Nabarmenena, erakunde ofizialek aplikazio horiei eskaintzen dieten sostengu falta da. Adibidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak kudeaketa aplikazioetarako duen atari nagusia (<https://www.hezkuntza.ejgv.net/aplikazioak/>) edota Ikastolen Elkarteko webgunearen hainbat aukera ezin ditugu behar bezala erabili *Firefox*-en, espreski *Internet Explorer*-ekin erabiltzeko diseinatuta daudelako. *OpenOffice*-ekin ekoiztutako dokumentazioarekin ere arazoak ditugu. Baina uste dut arazo horiek pixkanaka konpontzen joango direla.

Ubuntu-rekin ere, arazoak alde beretik etorriko direla uste dut. *Ubuntu*-ren arazo nagusia hori baita nire ustez: software garatzaile askok eskaintzen duten sostengu falta. Sostengu falta horrek arazo handiak sortuko dizkigu.

Ikastolen Elkarteak ekoizten dituen aplikazio didaktiko ugari erabiltzen ditugu ikasleekin eta horietako gehienek ez dute *GNU/Linux*-erako bertsiorik. Datorren urtean, horri irtenbidea ematea lehentasuna izango da guretzat.

Erresistentziarik topatu al duzue? Zein izan da, esaterako, ikasleen erantzuna?

Lankideen eta ikasleen erantzuna ezin hobea izan da. Elkarlanari eta borondate onari esker, aurrera egitea lortu dugu. Ikastolako klaustroak adierazi duen heldutasun teknologikoak harrituta utzi nau; etorkizunean izango ditugun erroka pedagogiko gehienak IKTen eskutik etorriko zaizkigu eta jarraera horri esker, arrakastaz egingo dugu aurrera. Ikasleei dagokienez ere, ez dugu arazorik izan. Gaztetxoek,


oraindik alfabetizazio digital baxua dutenak, oso modu naturalean egokitu dira eta helduak ere, erraz egokitu dira egoera berrira.

Etorkizun hurbilera begira software librea ikastetxe osora zabaltzea izango da erroka nagusia. Urrutirago begira jarriz gero, zer ideia dituzue buruan?

Datorren ikasturtea oso garrantzitsua izango da hiru urteko migrazio prozesua amaituko dugulako. Urte kritikoa izango da, arazoak sortuko baitira, ziur, eta gure asmoa horiek ahalik eta azkarren identifikatzea eta konpontzea izango da. 2010an sistema osoaren migrazioa amaitua izan nahi dugu. Eta gero, zer? Bada, teknologia berrien esparruan oso urrutira begiratzerik ez dago, aldaketak etengabe gertatzen baitira.

"Hezkuntza Irekiaren aldeko Lurmutur Hiriko Aitorpena" izeneko dokumentuan hezkuntza baliabide irekien irismena eta eragina handiagotzeko hiru estrategia definitzen dira. Horietatik bigarrena azpimarratu nahi izan du Jokin Lacallek. Honela dio:

"Hezkuntza Baliabide Irekiak: bigarrenik, hezitzaile, egile eta erakundeei dei egiten diegu baliabideak modu irekian argitara ditzaten. Hezkuntzako baliabide ireki horiek lizentzia behar lukete edozein pertsonak erabili, berrikusi, itzuli, hobetu eta partekatu ahal izateko, modu idealean, lege arloko mugarik gabe, eskumen egoki baterako edo ondoriozko lanak partekatzeko sortzailearen eskakizuna besterik behar izan gabe. Baliabideak erabilera nahiz edizioa erraztuko duten formatuetan argitaratu beharko lirateke, eta plataforma tekniko ugarietara egokitzeko moduan. Eta, ahal denean, ezintasun fisikoak dituztenentzat eskuragarri egon beharko lukete; baita Internetetarako sarbiderik ez dutenentzat ere."





Assa ikastola. LAPUEBLA DE LABARCA

Julen Zabala Lapuebla de Labarcano Assa ikastolako IKT dinamizatzailea da, eta Software librearen aldeko taldeko kidea. Duela urte batzuk hasi zen Julen software askea erabiltzen, baina Assa ikastolan duela bi urte hasi ziren software askearekin lanean. Ikastolan taldetxo bat sortu zuten, proposamena egin eta klaustroak babes osoa eskaini zion ekimenari. Hainbat aukera aztertzen eta frogak egiten hasi ziren orduan, eta emaitza onak ikusita, gaur arte horretan jarraitu dute.

Duela bi urte Assa ikastolan software askearekin lan egitearen alde sortu zuten taldetxoak, ikastolek eragile izateko duten ahalmenean sinesten du, hezkuntza askea eta irekia posible dela uste dute eta bide horretan, dependentzia teknologikoa kontrako faktore gisa ikusten dute.

Software askearen aldeko apustua zergatik egin zuten garbi du Julenek: "Inguruan dugun errealitateaz kontziente garelako eta zentzuz jokatzeko". Zentzu horretan, egun bizi dugun egoera historikoa bereziki garrantzitsua dela uste du eta hainbat arrazoi aipatu ditu: "Alde batetik, iturri kodea ezagutuz, softwarea euskaratzeko aukera zabalagoa da. Gainera, software askearen inguruan gero eta baliabide eta erraztasun gehiago daude". Gizartean ezagutza partekatzeari garrantzia ematen dion mugimendu edo filosofia berria zabaltzen ari dela dio Julenek eta horrek ez duela onartzen ezagutza merkantzia izatea. "Filosofia horrek ze-

ra aldarrikatzen du: ez dago gizarte askerik software askerik gabe. Izan ere, zilegi al da, akaso, DBH amaitu duen ikasle bati sistema eragileaz galdetu eta soilik *Windows*-a dagoela erantzuteak? Zer hezkuntza teknologiko dependiente ari gara bultzatzen? Pozik egongo dira Microsoftekoak...", dio Julenek. Izan ere zailtasunak hor dira: "Hartzen dugun bidea edozein delarik ere, migrazioak kostu bat izango du. Zeren, estandarrak betetzeko eta elkar ulertzeko eginak dauden honetan, *Windows*-eko software gehienak ez ditu errespetatzen, berekiko dependentzia areagotuz. Horrez gain, lizentzien pisua geroz eta astunagoa izan daiteke ikastola askorentzat, txikiengatik gehienbat", azpimarratu du Julenek.

Horrekin ez dute esan nahi software askeak zailtasun edo arazo guztiak konponduko dituenik, ezta doan denik ere, baina bide bat edo bestea hartzea geure esku dagoela aldarrikatu nahi du Assa ikastolak. "Zuk sagar bat badaukazu eta nik beste bat, trukatzu gero, sagar bana izango dugu; baina zuk ideia bat badaukazu eta nik beste bat, trukatzu gero, bina ideia izango ditugu". Esaldi horretan oinarritutako filosofia jarraitzen dute Assa ikastolan, kidekotasunaren eta elkarbanatzearen filosofiak guztiontzat abantailak dakartzala uste dutelako. Lehen egitekoa, beraz, inguruko eragileak sentsibilizatzea izango da, etorkizunean hartu beharreko erabakiei zentzuz aurre egiteko oinarri filosofikoa izan dadin.

Ikastolen egungo egoera erreala zein den aintzat hartuta, mailakako aldaketa egiteko proposamen zehatzak



luzatu behar direla uste du Julenek; plataforma aldatu gabe, hasieran, *Windows* gainean software askeko aplikazioak erabiliz, eta bakoitzaren eritmo eta denborak errespetatuz, sareko zerbizari eta sistema eragileak aldatzen joan.

Assa ikastolan prozesuaren lehen fasea amaitzean dago, egun erabiltzen duten software gehiena askea da, eta ikasleekin *Ubuntu* sistema eragile askea erabiltzen dute. *OpenOffice*-ekin oso ongi moldatu dira. Dagoeneko haien ordenagailu parkea mantentzen laguntzen dien enpresak Linux-en lan egiteko gaitasuna du eta laister, migrazioaren hurrengo faseari heltzeko moduan izango dira.

Julenek argi du, egungo sistema eragiletik aldentzeko ikastolen munduan egiten diren aplikazioak estandarretan oinarrituak izatea beharrezkoa dela. Pausu hori bereziki garrantzitsua izango da haren ustez *Windows*-ekin ditugun loturak askatzen hasteko.

San Bizente ikastola. OION

Oiongo San Bizente ikastolan duela hiru urte hasi ziren lanean software askearen inguruan eta David Sanchez ikastolako IKT dinamizatzaileak azaldu digunez, ikastolako ohiturak eta lan egiteko moduak filosofia berri horretara egokitzen ari dira pixkanaka. Hasieran aldaketari beldur apur bat bazioten ere, gaur egun oso pozik daude hartutako erabakiarekin.

San Bizente ikastolan software askearekin lanean hasi aurretik, tresna horien berri bazuten, baina zerbait arraroa zela pentsatzen zuten Davidek esan digunez: “ordaindu nahi ez duten softwarea edo programadore *frikien* kontua zela uste genuen”. Baina software askearen atzean ezkutatzen den filosofia haien lan egiteko era zalantzan jartzen zuen behin eta berriz. “Zer ari gara egiten? Ikasle libreak hezten ari gara edo enpresa baten menpe izango diren bezeroak sortzen? Nola gustatuko litzaziguke izatea etorkizuneko gizartea? Galdera horiek ikastolan indarra hartzen zuten neurrian aldaketa garrantzitsua gertatu zen software askearen munduan: inguru grafiko indartsuak zituzten sistema eragileak agertu

ziren. Era horretan, *Ubuntu* bezalako sistema bat erabiltzeko ez duzu programadore ero bat izan beharrik, oso erraza eta atsegina baita. Bestetik *OpenOffice* paketeak testuak, aurkezpenak eta kalkulu orriak erabiltzeko aukera ematen zigun aldaketarik nabaritu gabe; Firefox nabigatzailea erabiltzen genuen ordurako... Aldaketa egiteko prest geunden”, azaldu digu Davidek. Eta aukera egitearen arrazoiak galdetuta ez du zalantzarik: “Aukera hori egiteko arrazoiak? Bada, laburbilduz esan dezakegu software askea hezitzailea, eraikitzailea, anitza, legala eta etikoa delako egin genuela aldaketa”.

Helburua, edukiera informatikoekin batera, ikasleei elkarlanaren garrantzia transmititzea da. Azken finean hori da software askearen atzean dagoena, elkarlana eta partekatzeo filosofia. Aldaketa sakona da, baina politikoki eginez gero ez du zertan traumarik sortu behar Daviden ustez: “Aplikazioekin hasi ginen, sistema eragilea aldatu gabe, izan ere *Windows*-en ere badaude askeak diren aplikazio ugari eta horiek erabiltzen hasi ginen; batik bat, *OpenOffice* (ofimatikarako), *Firefox* (nabigatzailea), *Gimp* (irudien tratatzearako) *Audacity* (audiogintzarako)...



Urrats hori emateko urtebetez aritu ginen lanean. Behin aplikazio askeetara ohituta geundela, sistema eragilearen aldaketa egitea erraza izan zen. *Ubuntu*-ren distribuzioa ekipo guztietan instalatu genuen eta *Debian*-ena zerbitzarian”.

Prozesu horretan, bidean topatu duten oztoporik handiena haien beldurrak gainditzea izan da, gainerakoa uste zutena baino askoz errazagoa izan baita. Etorkizunera begira, berriz, Euskal Herriko hezkuntza komunitatean eraldaketa bultzatzea izango da erronka nagusia Davidek esan digunez: “Ez gaude bakarrik, beste ikastola batzuk ere prozesu horretan sartzen ari dira eta gure ustez gero eta gehiago izango dira etorkizun hurbilean elkartuko zaizkigunak. Ikastola berri horiei laguntza eskaintzea eta gainerakoak kontzientziazatzea izango dira gure hurrengo helburuak”.





Diocesanas ikastetxea. GASTEIZ

Diocesanas ikastetxean, duela lau urte egin zuten software askearen aldeko apusturik garrantzitsuena Aitor López de Aberasturi, irakaslea eta Dinux proiektuaren arduradunak azaldu digunez. Orduan, DBHko eta Batxilergoko ikasleak informatika geletan *OpenOffice* erabiltzen eta *Dinux* euskarazko sistema eragilea eta euskarazko programak jasotzen zituen sistema garatzen hasi ziren.

Software askea erabiltzen hasteko arrazoi nagusiak bi izan ziren: alde batetik Diocesanaseko etorkizuneko apustu bat izan zen, eta, bestetik, software askeak euskarari ematen zion aukera aprobetxatu nahi zuten. Software

askeak eskaintzen dituen abantailak baliatu nahi dituzte Aitorrek esan digunez: “Gure ikastetxeetan ordenagailu baten aurrean euskaraz edo gaztelaniaz ari gaitzeko, gure sistemak oso seguruak dira, ez dugu birusik jasotzen, ez dugu urtero lizentziarik ordaindu behar, eta batez ere kopiatzeko, elkarbanatzeko, aldatzeko askatasuna dugu”.

Ikastetxe osora zabaldu dute software libre. Alde batetik, Diocesanaseko lau zentroetako Mediateketan eta DBHko eta Batxilergoko informatika geletan *Dinux* sistema eragilea instalatu dute, eta zentroetako beste ordenagailuetan jabedun-softwarea instalatuta izateaz gain, software askea ere badu-

te. Administrazioak dena den, ez du biderik errazten Aitorren iritziz: “Euskal Herriko administrazio publikoek jabedun-softwarea besterik ez dute erabiltzen eta urtero sekulako dirutza gastatzen dute lizentzietan. Europako hainbat erakunde software askea erabiltzen hasi dira dagoeneko. Extremadurako gobernuan software askea erabiltzen dute soilik eta hemen oraindik hori zer den ere ez dakigu. Etorkizunean software askea erabiliko dugu, hori argi daukat, baina administrazioek aurrerapausoak egin beharko lituzkete lehenbailehen”.

Dinux webgunetik haien sistema eragilea doan deskargatu eta froga dezakezue: <http://www.dinux.org>.

Politeknika Txorierri ikastetxea. DERIO

Lanbide Heziketan ere bada esperientziarik. Derioko Politeknika Txorierri Ikastetxean, esaterako, duela hamar urte hasi ziren software askea erabiltzen Josu Orbe IKT sustatzaileak azaldu digunez. Garai hartan idazmahaiko aplikazioen garapena oraindik software pribatiboaren menpe zegoen, baina zerbitzarietan gauza politak egin zitezkeen software libre erabilita.

Lizentzien kostua eta une hartan Telekomunikazio eta Informatikako Goi Mailako Ziklo berriaren garapenerako, bai ikasleen eta bai irakasleen formazioarako, onuragarri izango zela. Horiek izan ziren Politeknika Txorierri ikastetxeak software askearen aldeko apus-

tua egitearen arrazoiak. Richard Stallman-i jarraituz, beste arrazoi etiko eta moralik badela azpimarratu du Josu Orbe, baina une hartan pragmatismoa eta gerorako ikuspena izan ziren arrazoi nagusiak.

Teknologia aldetik eraginkortasuna eta efizientzia bultzatu nahi dituzte software askea erabiliz, baina, ikastetxea izanik beste gai batzuk ere jorratu behar dituzte. Adibidez, hainbat formaturen arteko konpatibilitateak lantzea, lizentzien ezagutza eta ikuspuntu etikoa eta kritikoa lantzea, zenbait sistema ikasteko aukera izatea, eta partekatzea balio moduan hartzea.

Hamar urteotan gorabehera handiak eta zalantza asko izan dituzte baina aurrera egin dute. Zerbitzarietan *Moodle e-learning* plataforma abian

dute 2005etik, idazmahaietan *Firefox*, *OpenOffice* eta beste aplikazio batzuk instalatu dituzte eta gela batzuetan *Ubuntu GNU/Linux* sistema eragilea instalatu dute. Erabiltzaileen formazioa kontuan hartu behar izan dute, migrazioaren arazorik handiena ohiturak aldatzea izaten delako maiz.

Aurrera begira, software askea zerbitzu gehiagotan eta gela gehiagotan sartu nahi dute eta argi dute adi egon behar dutela, informatikaren munduan denbora laburrean aldaketa ugari gertatzen delako. Dena den, Josuk azaldu digunez, Lanbide Heziketan, askotan, oso zaila egiten zaie aplikazio profesional pribatiboak ordezkatzeko, horiek izango baitira ikasleek, gerora, lantokietan aurkituko dituztenak.

begoña ibarrola

ELKARRIZKETA

Psikologoa. Idazlea. Adimen emozionalean aditua. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko musikoterapia masterreko irakaslea. SYCOM-eko arlo emozionaleko prestatzailea Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat

// Emozionalki adimentsua den gizarte batean biziko bagina, gurasoek, eskolak eta gizarteak hezkuntza parametro berberak izango lituzkete //



begoña ibarrola

E

// Adimen emozionalaren gaitasunak hezigarriak dira, ezagutzak barnera daitezke, gaitasunak gara daitezke eta jarrerak bultza daitezke. Hezkuntza etengabe ari da elementu horiekin lanean; kontua ez da ikasleek ezagutza batzuk barneratzea soilik, baizik eta besteekin egoki jokatzeko erak garatzea eta bizitzarekiko, lanarekiko, ikasketekiko... jarrera positiboa izatea.

//

Psikologoa eta adimen emozionalean aditua da Begoña Ibarrola, eta, haur zein helduentzat hamaika liburu idazteaz gain, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakaslea da. Hamahiru urte daramatza adimen emozionaleko ikastaroak ematen, eta, horrek, tarteka jaioterri itzultzeko aukera eskaintzen dio, bilbotarra baita, jaiotzaz. Irakasleentzako eta gurasoentzako ikastaroak ematen ditu, eta argi utzi nahi izan du emozionalki adimentsua izatea bizitza osoko prozesua dela, eta, ikastaroez horretan laguntzen duten arren, magia ez dutela egiten eta horren atzean lan handia dagoela. Norberak, barnera begiratzeko eta aldatzeko prest egon behar du, eta bere buruarekin lanketa egin behar du, gaitasun emozionalak landu behar ditu, ondoren, ingurukoekin lantzeko. Adimen emozionala eta emozioak kudeatzen ikasteko gaitasunak lantzen dituzte ikastarotan, eta irakasleak oso gustura geratzen direla azpimarratu du. Irakasleek horrelako prestakuntza jasotzea oso garrantzitsua dela uste du Ibarrolak, besteak beste, ikasgelan emozioak era egokian kudeatzeak, giroa eta, horren ondorioz, irakasteko eta ikasteko prozesua hobetzen laguntzen duelako.



Adimen emozionala gero eta gehiago entzuten dugun kontzeptua da. Zer gertatu da horrelako garrantzia hartzeko?

Hainbat faktore izan dira. Baina, 1995ean, Daniel Gollemanek *Adimen emozionala* izeneko liburua argitaratu zuenean zabaldu zuen kontzeptua. Psikologoa eta kazetaria da, hizkuntza erraza erabiliz publikoarengana iristea lortu zuen, eta gai horiek ulertzeko leihoa zabaldu zien ordura arte interes handirik ez zuten pertsoneri. Uste dut gaiak erakargarritasuna duela, gaurko arazo askori erantzuten dielako; besteak beste, bortizkeriarekin, elkartasun faltarekin edota eskola porrotarekin zerikusia duten portaera askori erantzuna ematen dielako. Emozioek berebiziko garrantzia dute portaeran; zenbait emozio ongi egoten laguntzen digute, eta beste batzuek elkarbizitza oztopatzen dute, eta pertsonen arteko harremanetan arazoak sortzen. Gaitasun emozional guztiak gara daitezke, hezigarriak dira, eta horrek asko laguntzen du, ez baita baldintzapen genetikoa, ikas daitekeen zerbait baizik.

Nola definituko zenuke zeuk adimen emozionala?

Adimen emozionala gaitasun emozionalen multzoa da. Gaitasunak, ezagutza multzo bat dira, jarrera multzo bat... ez da soilik harremanak izateko gai izatea. Jarrera, trebetasun, ezagutza eta abarren sintesi bat da. Horiek guztiak mundu emozionala ezagutzera eta erabiltzera zuzentzen dira, eta, orokorrean, ongizate pertsonala eta ongizate soziala dute helburu. Adimen emozionalaren gaitasunak hezigarriak dira,

ezagutzak barnera daitezke, gaitasunak gara daitezke eta jarrerak bultza daitezke. Hezkuntza etengabe ari da elementu horiekin lanean; kontua ez da ikasleek ezagutza batzuk barneratzea soilik, baizik eta besteekin egoki jokatzeko erak garatzea eta bizitzarekiko, lanarekiko, ikasketekiko... jarrera positiboa izatea. Konpetentzia horietako batzuek geure barnean dagoena aurkitzen laguntzen digute, eta, ondoren, hori guztia besteekiko harremanetan erabil dezakegu. Nik uste dut horrek berebiziko garrantzia duela. Lehenik, norbera aldatzen da, eta, barne aldaketa horien eraginez, kanpo aldaketak gertatzen dira. Baina, jakina, norbera, zergatik aldatu behar duen ulertzen badu aldatzen da, ez irakasle batek esaten diolako. Lehenik zer egin behar duen ikusi behar dute, eta, barneratu ondoren, horrek ondorio positiboak dituela eta haiengan eta inguruan dituzten pertsonengan ongizatea sortzen duela ikusten dute. Hor formula garrantzitsua dugu. Hori dela eta, adimen emozionalaren definizioan oso garrantzitsua da trebetasunen eta jarreraren garapena azpimarratzea, ez soilik ezagutzen garapena. Pentsa ezazu hemendik urte batzuetara ikasleei emozionalki adimentsuak nola izan behar duten azaltzen dien liburu bat ateratzen dela; bada, horrek ez du balioko. Izan ere, nik asko irakur dezaket enpatiari bu-

ruz, enpatikoa izan gabe. Haur batek, ematen diozuna baliagarria dela eta bere bizitza hobetzen duela ikusten duenean, hartu egiten du. Adimen emozionalaren helburua, emozionalki osasuntsuak diren ohiturak sortzea izango litzateke, eta gaizki egotera bultzatzen gaituzten portaera okerrak, ongizate pertsonala eta soziala ekarriko duten beste ohitura batzuez ordezkatea.

Lehen prozesua pertsonala da, beraz. Barrura begiratu behar dugu zer dugun ikusteko. Kosta egiten al zaigu gure barnera begiratzea?

Bai. Gero eta gehiago. Duela hamahiru urte ikastaroak ematen hasinintzanean, autoezagutzaz edota auto-kontrolaz hitz egiten nuenean, erresistentzia gutxiago topatzen nuen. Gizartea erritmo bizian ari da garatzen, horrek arreta galarazten digu, eta desorekak sortzen dira. Gauza asko egiten ditugu, jendeak estres handia du, eta egiteko eta egiteko presio handia dago, kanpotik estimulu asko jasotzen dugu, eta pentsatzea alde batera geratzen da, ia lo hartzen ari garen une horietara mugatzen da. Autoezagutzak edo kontzientzia emozionala garatzeak denbora eskatzen du, eta begiak itxi eta barnera begiratzeko prest egotea. Hausnartzea, nola sentitzen zaren pentsatzea, zerk haserretzen zaituen, herstura noiz sentitzen duzun, noiz zauden goi-

bel edo zerk sortzen dizun goibeltasuna... Horrek guztiak hausnarketa eskatzen du, eta norberaren buruarekin konektatzea. Bestalde, emozio bakoitza gorputzeko zein seinalek laguntzen duten lantzen dugu, hau da, gorputzak sentitzen duguna nola adierazten duen. Eta sentitzea, pentsatzea eta egitea gizakia bizi behar deneko esparruak dira, baina denbora beretsuan: ezin dugu eguna eman egiten eta egiten, pentsatu gabe, baina ezta pentsatzen eta egin gabe ere. Akatsa litzateke. Sentitzeko uneak daude, pentsatzeko uneak daude, eta egiteko uneak daude. Pertsona orekatu eta osasuntsu batek, emozionalki adimentsua denak, badauki une bakoitzean zer egin behar duen, eta guztiari ematen dio denbora.

Haurrekin gauza bera gertatzen da, estimulu gehiegi jasotzen dituzte: telebista, bideojokoak, gurasoek eskaintzen dizkieten jarduerak... Horrek ez die euren buruarekin konektatzeko eta euren munduan egoteko lasaitasun unerik uzten. Batzuetan, haiek beren uneak izatea arazoa dela iruditzen zaigu. Niri, psikologo moduan, galdetu izan didate ea haur batek arazorik baduen fantasia mundu batean bizi delako eta imajinatzen dituen gauzei buruz hitz egiten duelako. Baina lau urteko haur batengan hori oso osasuntsua da. Guraso batzuk gauza arraroa dela pentsatzen hasten dira, gainerako haurrek bezainbeste jolasten ez dutela esaten dute, edo bideojokoek ez dituztela erakartzen. Baina askotariko haurrak daude, eta norberaren izaera errespetatu behar da. Egun osoa mundu fantastiko horretan eman eta errealitatea ukatzen ez duten bitartean, hori osasuntsua da.

Kanpoko estimuluak aipatu dituzu. Baina, horrez gain, beldurra al diogu barnera begiratu eta gustuko ez dugun zerbait aurkitzeari?

Helduek bai. Haurrek ez dute beren prozesuen gainean hausnarketa egiteko gaitasun metakognitiboa garaturik. Nerabezaroa une egokia da, barnera begiratzen den unea delako; hala ere, batzuetan ez da egoki gidatzen, eta





eta diren bezalakoak izatera daramatza pertsonak.

Adimen emozionalaren gaitasuna hezteko beharra aipatu duzu. Eskola al da horretarako lekurik aproposena?

Nik uste dut hezkuntza prozesu orotan oso garrantzitsuak diren hiru elementu daudela: familia da oinarrizkoena, gero eskola dago, eta, ondoren, gizartea. Izan ere, gizarteak eta komunikabideek ere hezten dute; haurrei irudiak ematen dizkiete eta, ongi edo gaizki, baina hezten ari dira. Familiak eta eskolak talde bakarra osatu beharko lukete. Nik uste dut eskolak familia bertan txertatzeko erronka duela, eta gune bakarra osatu beharko luketela, elkarri etsai gisa begiratu gabe; bata bestearengan konfiantza izan beharko luke, eta elkarri lagundu. Eta gurasoek ikusi beharko lukete hezteko lana ezin dutela soilik eskolaren gain utzi, biek dute erantzukizuna, eta ildo beretik joan behar dute, gatazkarik sor ez dadin. Batzuetan, kontraesanak sortzen dira: gurasoek seme-alabei norbaitek joz gero berdintsu erantzuteko esaten diete, eta, ikasgelan, adibidez, bakerako heziketa eta gatazken konponketa lantzen ari direlako adimen emozionalaren arloan. Alde batetik mezu bat jasotzen ari dira, eta, bestetik, beste bat.

Eta burua nahasten zaie...

Bai. Ni ikastetxe askotan izan naiz eta hiru edo lau urtetik aurrerako haurrekin gatazken konponketa lantzen aritu gara. Gurasoak, euren seme-alabekin hitz eginez, entzunez, adosjarriz... gatazka konpontzeko gai direla ikusten dutenean, harrিতa geratzen dira. Baina etxean gauza bera egin dezakete. Seme-alabek zerbait gaizki egiten duten bakoitzean zigortu edo zaplazteko bat jo beharrean, irtenbide bat bilatzera eta egindakoaren gainean hausnartze bultza ditzakezu. Eskola eta familia ados jartzen direnean, hezkuntza prozesua oso ongi doa aurrera. Gatazka sortuko dira, jakina, baina horiek ebaztea askoz errazagoa izango da, familia



// Nik uste dut eskolak familia bertan txertatzeko erronka duela, eta gune bakarra osatu beharko luketela, elkarri etsai gisa begiratu gabe; bata bestearengan konfiantza izan beharko luke, eta elkarri lagundu. Eta gurasoek ikusi beharko lukete hezteko lana ezin dutela soilik eskolaren gain utzi, biek dute erantzukizuna, eta ildo beretik joan behar dute, gatazkarik sor ez dadin.



ikusten dutenarekin beldurtu egiten dira. Heltzen goazen heinean, aldatzea kosta egiten zaigu, eta, hausnarketa egitean, aldaketarako eremu potentzialak ikusten ditugu. Baina pauso hori emateak ausardia handia eskatzen du, eta, egiazki, bere barnean oso sakon sartzen den jendea, zer aldatu behar den ikusten duena, eta, ondoren, aldatetei aurre egiten diena, ausarta da. Gizakiak badu ongi edo gaizki doan esaten dion barne alarmatxo bat, baina askok ez diote jaramonik egiten, eta gauzak egiten eta egiten hasten dira, denbora betetzeko. Bizitza erdia gauzak egiten joaten zaie, eta, agian, oso zaharrak direnean, bizitza erdia pasatu zaiela ikusten dute, eta ez dutela benetan nahi zutena egin, edo ez dutela haien benetako bokazioarekin edo pasioarekin bat egin. Adimen emozionala hori saihesten saiatzen da. Haurtzarotik, gaztarotik, norbera bere barruarekin konektatzen saiatzen da, kontura dadin, benetan, bizitzan zer egin nahi duen. Bokazio hitza alde batera utzi da, baina esanahi garrantzitsua du. Norberak munduari zer eskain diezaiokeen, nor den, zer gaitasun dituen, ekarpenik non egin dezakeen, etab. pentsatu behar du, eta horra jo, gozatuz. Nerabeekin gaitasun emozionalak lantzen ditugunean, jarduna haien bokazioa zein den aurkitzera bideratzen dugu. Ez daitzelera eremu batean presioagatik sar, edo hori modan dagoelako, bestela, azkenean, zoritxarrekoak izango direlako. Gizarteak ezin du norberaren potentziala alferrik galtzen utzi. Gauzak, horiek aldatzeko aukerarik badenean egin behar dira, eta gaitasun emozionalak lantzeak, bizitzan zer egin nahi duen ikustera, presioetatik alde egitera

alde batetik eta eskola bestetik joanda baino. Lehen emozioak, lehen irakaspen emozionala, uteroaren barnean jasotzen da, lotura hori oso garrantzitsua da, eta, jaiotzean, aita heziketa nukleo horretan presentzia hartzen hasten da. Haurra eskolan jartzen denean, beste haur batzuekin kontaktuan hasten denean, beste haur batzuegandik estimuluak jasotzen hasten da, eta bere sozializazio prozesua hasten da. Prozesu horretan ereiten duten lehenak gurasoak dira; ondoren, eskolak ekarpena egiten du, eta, azkenik, gizarteak osatu behar du. Emozionalki adimentsua den gizarte batean biziko bagina, gurasoek, eskolak eta gizarteak hezkuntza parametro berberak izango lituzkete. Baina, ez gara emozionalki adimentsua den gizarte batean bizi, eta haurrek eskolan ikasten dituzten zenbait gauza, gorde egiten dituzte eskolan baliagarri zaizkielako, baina konturatzen dira gurasoek ez dutela eurek duten ezagutza, eta badira gurasoei irakaspenak ematen dizkieten seme-alabak. Beraz, familiak eta eskolak onura atera diezaiakete heziketa emozionaleko programei. Gero, bada beste arazo bat ere: ikastetxe batzuek, batzuetan, gurasoei esku hartzen uzten diete, baina, beste batzuetan, hesiaren beste aldean gertzen dira eta ez dago harremanik. Horrela, familia ezin da elementu garrantzitsu gisa eskolan sartu. Baina gurasoak ikasgeletara sartzten direnean, eskola barnean beste guraso batzuekin elkartzen direnean, irakasleekin lotura sortzen dutenean, guztiak helburu bera dutela konturatzen direnean, hesiak hautsi egiten dira.

Eskolan, topa al daiteke orekarik alde emozionalaren eta alde kognitiboaren artean?

Bai. Gizakia hiru eremutan mugitzen da: dimentsio kognitiboan, portaeren dimentsioan eta dimentsio emozionalean. Tradizionalki eskolak lehen biei erreparatu die, baina dimentsio emozionalari ez. Ez presente ez zegoe-lako, zeren uneoro hor dago, baizik eta heziketa emozionala ez zelako era

kontzientean egiten. Ikasleak gustura sentitzen ziren oinarri kognitibotik haratago zihoazen harremanak zituzten irakasleekin, pertsonak berak jartzen zuen emozionaltasuna, baina beste irakasle batek, agian, paso egiten zuen; ikasgaia ematen zuen, baina ikasleei ez zien pertsona gisa begiratzen, eta gutxi inporta zitzaion arazoak zituzten, goibel ote zeuden... Ez ziolako horri erreparatzen. Gaur egun ikusten da ikasge-la barruan irakasle guztiak hiru dimentsioak aintzat hartu behar dituztela. Irakasleek ohartu behar dute ikasgelan daudenean ez dagoela neutroa den elkarrekintzarik, emozionalki neutralitate-rik ez dela existitzen: edo ikasleak maitatuak, babestuak eta balioetsiak sentitzen dira, edo epaituak eta gutxietsiak sentitzen dira. Irakasleak euren jarraitzaileak eta tratatuak ikaskuntza errazten dutela jabetzen direnean, ikasgelan asko aldatzen dira gauzak. Baina, irakasleak haren mundu emozionalari beldurra badio, ikasleekin emozionalki lotzeari beldurra badio, kanpoan geratuko da, eta soilik alderdi kognitiboari eta portaerei erreparatuko die. Nik uste dut erabaki hori ez litzatekeela norberaren esku utzi behar. Hezkuntza integralaren kontzeptua helburu gisa agertzen da ikastetxe guztietan, eta hezkuntza integralari buruz ari bagara, dimentsio

emozionalari besteei bezainbesteko arreta eskaini behar zaio. Ikasgelan ikasle bat goibel dagoela ikusten baduzu, zerbait gertatzen zaiola, hori konpontzeko zerbait egin behar duzu. Goibel dagoen bitartean, grinatsu dagoen bitartean, ez du ikasiko eta irakasleak esaten diona bost axolako zaio. Baina, irakasleak ez daude trebatuta, eta hori da arazoa. Ez dute emozioen mundua interpretatzen jakiteko eta hori kontrolatzeko, erregulatzeko, erabiltzen jakiteko prestakuntzarik jaso. Baina, irakasle gehienek, nola egin dezaketen ikusten dutenean eta gaitasun emozionalak lantzearen garrantziaz jabetzen direnean, horra jotzen dute.

Nola planteatzen dituzu ikastaroak?

Iraupen desberdineko ikastaroak ematen ditut, baina, batez beste, 20 ordukoak izaten dira. Lehen kontaktuan oinarriko arauak ematen zaizkie: zer diren emozioak, bakoitzak zertarako balio duen, emozio batzuk txarrak diren aurreiritzia baztertzea, emozioak nola adierazten diren azaltzea, gorpuztean eta gure portaeran duten eragina, ikasteko eta pentsatzeko gaitasunean nola eragiten duten... Oinarri zientifikoa eskaintzen diet, ikusteko, ez dela soilik modan dagoen zerbait. Ondoren, hainbat gaitasun emozional lan-



begonia ibarrola



// Ikastaroetan arauak, diziplina eta mugak jartzeko tresnak ematen zaizkie, baina estilo autoritariorik gabe. Autoritatera kasu zehatzetan jo behar dute soilik. Era horretan, ikasgelako arazoak asko murrizten dira, eta, maiz, ikasleek haien artean konpontzen dituzte arazoak, helduek esku hartu gabe. Aldea dago diziplina hutsaren eta afektua edo ulermena dituen diziplinaren artean.



tzen hasten gara, eta euren gaitasune-kin lan egitea proposatzen diet: autozagutza, autoestimua, automotibazioa, autokontrola... Enpatia, trebetasun sozialak eta gaitasun sozio-emozionalak ere lantzen ditugu, haien bizitzako adibide praktikoak hartuta. Ondoren, ikastaroarekin aurrera jarraituz gero, hori guztia ikasgelara nola eramaten den uler eta interpreta dezakete. Puntu horretan irakasleak banatu egiten dira: Haur Hezkuntzako irakasleak alde batetik, Lehen Hezkuntzakoak bestetik, eta Bigarren Hezkuntzakoak bestetik. Dinamikak eta helburuak adinaren arabera aldatzen dira. Baina, garrantzitsuena norberak bere burua lantzea da, bestela prozesua okerra izango baita. Ikasgelan heldua da erreferentzia nagusia, eta ezin duzu, adibidez, garrantirik ez egiteko esan, garrantirika. Egiten da, baina ez litzateke egin behar.

Baina, batzuetan, ez da erraza izango...

Ez, baina kontraesan horretan sartzen bazara, ikasleek esaten duzuna edo egiten duzuna egin behar ote duten galdetuko diote euren buruari, eta, azkenean, egiten duzuna egingo dute, erreferentia zeu zarelako. Eredua zara, eta oso haserre zaudela baina haserre hori ezabatzen saiatuko zarela esaten badiezu, irakaspen bikoitza ematen ari zara: alde batetik, haien modura gizakia zarela eta haserretu egiten zarela

esaten ari zara, baina, bestetik, haserretzen zarenean errespeturik gabe ez diezula hitz egiten, ez zarela bortitza, ez dituzula erruduntzat hartzen, ez duzula garrantirik egiten... adierazten ari zara; hori guztia erregulatzeko gai zarela, alegia.

Adinean aurrera egin ahala, garrantzi handiagoa ematen zaio arlo kognitiboari. Ikusten al duzue Bigarren Hezkuntzako irakasleen faltarik zuen ikastaroetan?

Nire esperientziaren arabera, Haur Hezkuntzako irakasleak etortzen dira gehien, ondoren Lehen Hezkuntzakoak, eta, azkenik, Bigarren Hezkuntzakoak eta Batxilergokoak. Badu azalpenik: alde batetik, Haur Hezkuntzan irakasleak berak antolatzen du denbora, eta ikasgela Bigarren Hezkuntzan baino errazago antola dezake. Lehen Hezkuntzan tutoreak pisua du, baina jada curriculumaren presioa sumatzen hasten da. Bigarren Hezkuntzan, irakasle askok euren ikasgaia eman eta ikasgelatik alde egiten dute; esaten dutenez, ez dute loturarik ikasleekin, ez dute horretarako denborarik. Ikastaroetan oso gustura geratzen dira, ordea, ikusten dutelako ez dela ematen dutenari zerbait gehitzea, baizik eta ematen dutena beste era batera ematea. Ez da lan gehigarri bat. Eta ordubete egon eta joan arren, konturatzen dira, ordubete horrek ikaslearen bizitzan inpaktua sor



dezakeela. Esperientziak esaten dit Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleek, eguneratze pedagogikora-ko ikastaro bat eman arren, pertsonekin nola lan egin behar duten ez dutela oso argi izaten. Eta guztia pertsonaren baitan geratzen da. Gehien behar dutenak izan litezke, baina hasieran mesfidatiagoak dira.

Demagun irakasle batek gaitasun horiek erabiltzen ikasi duela. Hark badaki ikasgelan nola jokatu behar duen, baina ikasleek gaitasun horiek landu ditzaten tresnarik eskaintzen al diozue?

Irakasleek, lehenik, euren buruarekin lantzen dituzte gaitasunak, eta, ondoren, ikasleei erakusten diete tresna horiek erabiltzen. Beraz, ezagutza hori orokortu egiten da. Egin ditugun jarraipenetan ikusi izan dugu, gainera, denborak aurrera egin arren, ikasleek tresna horiek mantentzen dituztela, euren bizitzan balio dietelako. Asertiboa izaten, bere iritzia ematen, eskatzen, ezetz esaten, etab. dakien pertsona bat askeago sentitzen da, eta bizitza osorako ongi etorriko zaio. Gaitasun horiei guztiei bizitzarako gaitasunak deitzen zaie munduko zenbait tokitan. Nik oso gustuko dut era hori, bizitzarako gaitasunak dira, ez soilik ikasgelarako gaitasunak.

Adimen emozionala curriculumean sartzea irtenbide bat izan liteke. Zu zeu integrazio curriculumarean ari zara lanean orain. Nola bideratzen duzue adimen emozionalaren gaia curriculumaren barnean?

Ni SM argitaletxearekin ari naiz lanean. "Sentitu eta pentsatu" izeneko lehen programa haiek egin zituzten gaztelaniaz 2000. urtean, eta nik ere parte hartu nuen. Gaitasun emozionalak garatzeko materialak argitaratzeko interesa izan zuten, eta gaia lantzen lehenak izan ziren. Irakasleek gaia gehigarri modura ez ikusteko eta irakasle gehiagorengana iristeko, heziketa emozionalerako proposamenak ikasliburuetan sartu zituzten. Nik Lehen

Hezkuntzako materialak egin ditut, eta, ikasliburuetan, unitate didaktiko bakoitzean, horrekin bat datorren jarduerara bilatzen dugu. Adibidez, sumendiei buruz hitz egiten ari bazara, zera galde dezakezu: "Noiz sentitzen zarete zuek sumendia bezala? Noizbait sentitu al duzue lehertu behar zenuela?". Eta, galdera ez dago lekuz kanpo, sumendiei buruz hitz egiten ari zinelako. Sormen ahalegina egin behar da, eta asko pentsatu behar da, adibidez, matematikan heziketa emozionalerako proposamenak topatzeko. Nik uste dut unitate didaktikoari plus bat ematea dela. Irakasleek erabilgarritasuna ikusten dutenean, beste alderdi batzuk lantzeko proposamenak egiten dituzte, eta hobeto sentitzen dira, motibatuta, pozik daude egiten dutenarekin...

Irakaslearen betekizuna aldatu egiten da, beraz, eta garai batean zuen irudi autoritario hori alde batera geratuko litzateke. Hori, ordea, mugak jarri ezinarekin nahas daiteke. Ba al da hor kontraesanik?

Haur Hezkuntzan, adibidez, bi edo hiru urtetik aurrera mugak ikastea beharrezkoa da. Gaitasun sozio-emozionalak lantzen ari direnean, irakasleei diziplina emozionala eta mugak jartzen irakasten zaie, baina garrantzitsua da errespetuz eta ulertuz egitea. Irakasleei informazioa ematen zaie, eta mugak eta arauak jartzen dituzte. Hezkuntzak ez ditu arauak, mugak eta diziplina alde batera utzi behar, inondik inora. Baina gauzak inposizio bidez edo kontsentsu bidez lortzea, oso desberdina da. Ikastaroetan arauak, diziplina eta mugak jartzeko tresnak ematen zaizkie, baina estilo autoritariorik gabe. Autoritatera kasu zehatzetan jo behar dute soilik. Era horretan, ikasgelako arazoak asko murrizten dira, eta, maiz, ikasleek haien artean konpontzen dituzte arazoak, helduek esku hartu gabe. Aldea dago diziplina hutsaren eta afektua edo ulermena dituen diziplinaren artean.

Gai horrekiko interesa handia da. Nola ikusten duzu etorkizuna?

Heziketa emozionalak lortuko al du behar duen lekua?

Bai, baina leku guztietan programa guztiak ez doaz eritmo berean. Oso garrantzitsua da ikastetxeko hezkuntza plan osoa lantzea eta ikastetxe osoa inplikatzea. Hemendik hamar urtera adimen emozionala hezkuntzan ezaguna izatea espero dut, eta hezkuntza gizar-teko beste eremu batzuetan sartzeko akuilua izatea; izan ere, ezin ditugu enpresa mundua eta esparru sozio-komunitarioa ahaztu. Gipuzkoan lan handia egin da, eta Gollemanek berak oso garrantzitsutzat jo zuen urrian egin zen ebaluazioa; munduan ezagutzen duen proiektu berritzaileenetako bat dela esan zuen. Kontua ez da ereduak mimitetikoki ezartzea, baina Gipuzkoan posible izan bada, beste leku batzuetan ezartzea ere posible izango da. Olio tanta txikiek orban handia egiten dute azkenean. Ni baikorra naiz, eta horretan sinesten dut. Oso tresna baliagarriak dira edonorentzat, batzuk eta besteak esparru horretan sartzen joango dira, eta emozioek orain arte eman zaiena baino garrantzi handiagoa izango dute, betiere ongizate pertsonala eta ongizate soziala lortzeko helburuarekin. Irakasleria krisian da, une txarra igarotzen ari da, eta laguntza oro oso garrantzitsua da.

Erreminta kutxaren metafora gogoko du Ibarrolak. Adimen emozionalerako ikastaroetan kutxa ematen dizutela dio, eta tresna horiek nola erabili esaten dizutela, baina zuk behar dituztenean erabiltzen dituzula: "Beraz, koadro bat zintzilikatzeko ez duzu iturria konpontzeko behar duzun erreminta bera beharko. Arazoa erremintarik ez baduzu edo horiek erabiltzen ez badakizu topatuko duzu. Iltze bat sartzean, behatza joko duzu agian, baina mailua nola erabili baldin badakizu, ez duzu zailtasunik izango".

Arno Stern: "Formulazioa ez da posible den zerbait, beharrezkoa den zerbait baizik"

22 urte besterik ez zituenean, gerrak utzitako umezurtzekin hasi zen lanean Arno Stern, 1946an. Orduan ikusi zuen haurrek beti gauza beretsuak margotzen zituztela, eta margotzen zituzten gauza horiek printzipio jakin batzuek gidatzen zituztela. Horrekin harrিতuta, jakin-mina piztu zitzaion, eta 60 eta 70eko hamarkadetan munduko hainbat leku bisitatu zituen, eskolatu gabeko haurrek zer eta nola margotzen zuten aztertzeko. Horrela aurkitu zuen formulazioa, sistema autonomoa, egituratua eta unibertsala. Parisen *Closlieu* izeneko tailerra sortu zuen, eta han bizi izan duen esperientzia munduko hainbat bazterretan ezagutarazi du; izan ere, han gertatzen den margotzeko jolasak parekorik ez duela dio. Euskal Herrira ere, hori ezagutaraztera etorri zen abenduan, eta guk harekin egoteko aukera izan genuen. Hitzaldia eman aurretik, formulazioari buruz eta margotzeko jolasari buruz arituginen Sternekin.

Zure hitzaldiari polemikoa izan daitekeen izenburua jarri diozu: "Haurren marrazkia. Akatsa".


Haurrak trazatzen duenean, hori formulazioaren zati bat da, eta formulazioa kode unibertsala da. Ez da artearen zati bat. Haurren marrazkiak beti amaitu gabeko jarduera baten gisara hartu

ditugu. Hori da akatsa. Haurren trazua beste era batera bilatu behar da.

Formulazioari buruz hitz egiten duzu. Zer da formulazioa?

Nik neuk sortu dudana *Closlieu* izeneko leku batean egiten dut lan, eta, leku horretan, eskaintzen duen lasaitasunari esker, beste baldintza edo egoera batzuetan ager ezin daitekeen trazua agertzen da. Leku horretan inork ez dio inori behatzen eta inork ez du ezer jaso-

tzen, ez dugu mezu bat zabaltzeko aukerarik ematen duen ezer. Hori artearen ezaugarria litzateke. Baina, hemen, baldintza horietan soilik agertzen den arrastoa da, aurrez inoiz existitu ez dena, baldintza horiek inoiz existitu ez direlako. Zibilizazio guztietan trazatu dugu komunikatzeko. Horregatik uste dugu komunikatzeko, soilik trazuak edo arrastoak balio duela. *Closlieu* beste adierazpen mota bat posible da, eta, horrek, beste baldintza batzuetan



emango ez litzatekeen zerbait adierazteko aukera ematen du. Hori ikusi dut 60 urtean zehar Closlieun egindako lanean. Baina, nire buruari galdetu izan diot ea beste kultura batzuetan edo beste zibilizazio batzuetan trazuak bestelakoak izango liriatekeen. Horregatik ibili naiz munduan zehar eta bilatu ditut eskolatu gabeko herriak, gure kulturaren eraginik jasan ez dutenak, nomadak aurkitu ditut basamortuan, oihaneko biztanleak ezagutu ditut, Afrikan ibili naiz, kontinente guztietan, eta trazua leku guztietan bera dela ikusi dut. Baina, soilik era librean, kanpoko eraginik gabe adierazten bada. Era errazean azaltzen da, formulazioaren iturria memoria organikoa delako, gizaki guztiengan existitzen den zerbait. Eta jai aurreko sentipenak gordetzen ditu, sentipen horiek memoria organikoan gordetzen dira, baina ez da horiek adierazteko formulazioa ez den beste erarik. Horrek azaltzen du gaiaren garrantzia. Arraroa da ezagutza hau lehenago existitu ez izana, baina egitate da.

Esan duzunez, beharrezkoa da formulazioa agertzeko hainbat baldintza izatea. Zein dira horiek? Eta nola sor litezke, adibidez, zeure tailerrean, *Closlieun*?

Aldatzen ez den gunea da, kanpoko eraginik jasotzen ez duena, norbera egunerokotik kanpo senti daitekeen lekua da; 15 bat pertsonako taldeak izaten dira, desberdinak, eta ez da ikasgela bat, aldera ezinak diren pertsonak dira, eta sekula beraien artean alderaketarik egingo ez dutenak. Horrela, pertsona bakoitza den moduan berresten da, bere nortasuna berresten du, gainerakoei kalterik egin gabe, ez dagoelako lehiarik. Hori da *Closlieuren* berezitasuna, eta margotzearen jolasa deitzen da. Margotzearen jolasa margotzearen artearengandik bereizten da.

Zein da hezitzaileak horrelako tailerrean duen egitekoa?

Laguntzailea da. Hori izango litzateke rola. Ez naiz irakaslea, ez naiz zuzentzen duen pertsona bat, aukerarik onenak eskaintzeko nago hor, beste leku batean eman ezin daitezkeen aukerak daude han, eta ni jolas horren lekukoa naiz. Hori guztia ezagutaraztea ere nire funtzioa da.

Garrantzitsua da hezitzaileak tailerrean aritzen diren pertsonak egiten duten lana ez epaitzea...

Bai. Epaitzea ezinezkoa da, ez dagoelako epai daitekeen ezer. Ez da mezurik, formulazioan ez da inolako mezurik. Ez dugu interpretatzen, eta ez dugu ezer aldatzea bilatzen. Formulazioa behin betikoa da, gertatzen den moduan gertatzen da. Ez da elaborazio bat artelanen modura, behin betiko zerbait da. Formulazioa ez da posible den zerbait, beharrezkoa den zerbait baizik.

Zer iritzi duzu eskolan marrazketaren gainean egiten den lanari buruz? Eta heziketa artistikoari buruz?

Oso kaltegarria da, berezkitasunaren kontra doalako, eta, haurraren burua eta espiritua, formulazioa zapaltzen edo kaltetzen duten eta baliogabeak diren nozioekin betetzen dituelako. Heziketa artistikoa bertan behera utzi be-

har da. Haurrentzat zorigaitza da; haur batzuk lehenera etortzeko eta formulazioa berriro aurkitzeko joaten dira *Closlieura*. Baina haur gehienek ez dute formulazioa inoiz ezagutuko. Hori tragedia bat da, aukera garrantzitsua galtzen dutelako.

Eskolan, adibidez, zure tailerrean dauden antzeko baldintzak sortu beharko liriateke?

Bai, posible da. Heziketa artistikoa egitea baino positiboagoa litzateke, ziur. Eskolak *Closlieura* egokitzeko aukerarik izango balu, oso ongi legoke. Baina *Closlieu* ezin da eskolara egokitu.

Eta bateragarria izango al litzateke baldintza horiek dituen espazio bat eskolan gaur egungo heziketa moldeekin, edo aldatu egin beharko litzateke sistema guztia eta horren inguruko printzipioetan eraiki?

Hori ez danire arazoa. Nik eredu bat proposatzen dut, eta bakoitzak horrekin ahal duena edo nahi duena egiten du. Badira irakaskuntzan *Closlieu* eskolan sartu dutenak, eta horrek haurrekin zuten harremana guztiz aldatzera behartu ditu. Aldaketa hori bateragarria al da eskola programarekin? Horra hor galdera. Baina, eskolan krisi handia dagoenez, dena da posible.

Haurren marrazkia ez da existitzen

Arno Stern-en hitzetan oso larria da hurrei "marrazki bat egin iezadazu" gisakoak esatea. Haratago doa, haurren marrazkia ez dela existitzen dio, eta, haurrengan marrazkiak egiteko ohitura sortuz, adierazpen naturala izango litzatekeena hondatu dugula. "Haurra, paper batean zerbait trazatzen duenean, jolasten ari da, ez da artea egiten ari, haren mundua sortzen ari da, eta horrekin ez du ezer jakinarazi edo erakutsi nahi. Ez dago mezurik eta ez dago interpretaziorik", dio Sternek. "Ez da imajinazio kontua, ez dago ezer suspertu beharrik. Fantasiari buruz, sormenari buruz... hitz egiten da. Zenbat nozio ezabatzeko!", gaineratu du. Ipuin bat irakurri eta, ondoren, marrazki bat egin dezaten eskatzea ere zerbait kopiatzearen antzekoa dela dio, ez dela zerbait askea, eta haurra helduaren desioa betetzen saiatuko dela. Hurrei ez zaie ezer inposatu behar, eta haurraren trazatua errespetatzea haurra bera errespetatzea dela dio.

Gure gela: Lau pareta baino gehiago



Idoia CARRICAS

HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEA. MENDIGOITI I.P.
(IRUÑEA)

Ikasgeletako paretak eta apalategiak, maiz, estimuluz gainezka egiten direla dio Idoia Carricas irakasleak artikulu honetan. Modan dauden marrazki bizidunak, erreferentzia didaktikoak, jolasak... denetik aurki daiteke gure ikasgeletan. Giroak hezi egiten du, eta beharrezkoa da giro goxoa sortzea, baina hainbeste estimulurekin, haurrei zaila egiten zaie begirada nonbaiten kokatzea, eta, askotan, gustura egotera bultzatu baino, gehiegizko dekorazio horrek, irakasleak urduritu ditzake. Giro eroso lortzeko, material batzuk aukeratu eta, ikasturtean aurrera egin ahala, horiek aldatzen joatea proposatzen du Carricasek.

Urtero, ikasturte hasieran, irailaren lehen egunetan, irakasleak eskolara etortzen ez direnean, irakaleei harrera egite-

ko unitate didaktikoak eta eskolak prestatzen ditugu irakasleok. Denbora eta ilusioa jartzen ditugu gelako giroa ahalik eta beroena izan dadin, haurrak gustura egon daitezen; horretarako, gure gelako paretak modan dauden marrazki bizidunen posterrekin apaintzen ditugu, eta baita beste erreferentzia didaktiko batzuekin ere, hala nola irakasleentzako, artelan ezagunen laminak, hizkiak, zenbakiak... Jakin badakigulako, giroak ere hezten duela. Ikasturtea aurrera doan heinean, paretan libre gelditzen diren tokietan une horretan lantzen ari garen unitate didaktikoaren erreferentziak edota irudiak jartzen ditugu. Horren ondorioz, gure gela estimuluz gainezka izaten da.

Gelako paretetan irakasleek ikastea nahi dugun guztia paratzen dugu, baina zertarako ikasi behar dute, beti begi

bistan baldin badute? Hainbeste jostailu, liburu, panel eta irudiren artean irakaleei zaila gertatzen zaie begirada nonbait kokatzea; eta, azkenean, panel eta irudi horien estimulaziorako eta motibaziorako helburu didaktikoa ez da betetzen. Are gehiago, gure gelako hainbat apaingarri estimulatzen baino gehiago, haurrak urduritu ditzakete. Egoera horri gure gelak askotan behar bezain handiak ez direla, eta ratioa bete-betirik dugula gehitzen badiogu, giroa ez da guk nahiko genukeen bezain beroa izango.

Ez dut uste irakasleok feng-shui diziplinari buruzko ikastaro bat egin behar genukeenik, baina, agian, gure gelako giroa pixka bat gehiago zaindu behar genuke. Beste lan eremu batzuetan dagoen giroaz ikasi behar genuke, gero gure eskolen errealitate



egokitzeko; liburutegietan, adibidez, koadro gutxi ikusiko ditugu paretetan zintzilikaturik. Gure gelek kontzentrazioa erraztea lortu beharko genuke, eta, horrez gain, leku erosoak izan behar dute, eskolan ordu asko ematen baitugu.

Giro eroso hori lortzea erraza da. Horretarako, paretan jartzeko ditugun material polit horien artean gutxi batzuk aukeratu behar ditugu, eta horrek bete gabe paratu. Material horiek jartzerakoan hauren altuera kontuan izan behar dugu, ikasleek irudi edota panel horiei behatuz eta begiratuz goza dezaten. Gainerako materiala erabiliko dugu, baina aurrez jarritakoekin trukatu. Seguru asko haur bat baino gehiago aldaketaz konturatuko da, eta horri buruz galdetuko digu.

Bestalde, ongi legoke gelako lau paretetan "ohorezko" leku bat gordetzea gure ikasle artisten artelanak zintzilikatzeko. Ez dugu ikasle guztien lanak paratu beharrik, are gutxiago oso antzekoak edo berdintsuak direnean; izan ere, zer zentzu du hoguei fitxa berdintsu ikusteak? Hala ere, gure ikasleek haien lanak noizbait "ohorezko" leku horretan paratuko direlako ziurtasuna izan behar dute. Askotan, egindako ekintzaz harro egoten dira, eta beren lanak guztien begi bistan egotea eskatzen dute; beste batzuetan, aldiz, nahia go izaten dute bere kutxan gordetzea.

Gure gelako paretetara buruz hitz egin dugu. Estimuluz beteta daudenean gure ikasleak asalda daitezkeela esan dugu, eta antzekoa gerta daiteke apalategiak materialez eta jolas didaktikoz beteta daudenean; haurrak ikusten dutenarekin jolasteko edota esperimentatzeko irrikaz baitaude. Horrez gain, material horrek guztiak ikus eremuan ere eragina du. Giro lasaia lor dezakegu, begien bistan dagoen materiala armaruetan edota errezel batzuen atzean gordez gero. Eta, irudiekin proposatu



dugun bezala, ikasturtean aurrera egin ahala materialak eta jolas didaktikoak trukatu beharko genituzke, lanak eta ekintza proposamenak aberastuz eta berrituz. Gero eta material gehiago izan, orduan eta denbora gehiago beharko dugu horiek biltzeko, eta lan hori egitea konplexuagoa izango da. Hori da, hain zuzen ere, irakasle guztiok saihestu nahi duguna. Esandakoa topiko batekin laburbil dezakegu: hobea da kalitatea kantitatea baino.

Gure eguneroko lanean gela aztertzeke eta geure buruari, zer giro transmititzen ote dugun galdetzeko uneren bat aurkitu beharko genuke. Inguruan giro eroso eta beroa izatea ez baita bat-batean lortzen, ezta gauzak behin ba-

karrig eginda ere, denbora luzean eta jarraituan baizik.

Bukatu baino lehen, gogorazi nahi nuke, ikasgelaz gain, eskolan zaindu behar diren beste eremu batzuk egon badaudela, hala nola, pasealekuak, jantokia, komunak, psikomotritate gela... Leku horietan gelei buruz esandakoa errepikatuko litzateke; giro eroso eta sustagarria, ordenatua eta sortzailea, aberatsa eta lasaia sortu beharko genuke.

BIBLIOGRAFIA:

- ESCUELAS INFANTILES DE REGGIO EMILIA: La inteligencia se construye usándola, Morata, Madrid, 2002.
- GOLDSCHMIED, ELINOR; JACKSON, SONIA: El juego heurístico, Morata, Madrid, 2007.

Sexu hezkuntza

Biografia positiboak eraikitzeko aukera



Nerea SANCHO

PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA

Sexualitateak probetxuzkoak izan daitezten, bizipen positiboak izatea beharrezkoa da eta horretarako, ezinbestekoa da geure eta ondoko buruak eta gorputzak ongi ezagutzea. Sexu hezkuntza eskola curriculumean derrigorrezko edukia den arren, horretara denbora gutxiegi bideratzen dela uste du Nerea Sanchok eta ikasgelan eta etxean kontuan har daitezkeen zenbait gai-ri helduz, biografia positiboak eraikitzeko hainbat proposamen egin ditu artikulu honetan.

Bi sexuak, neskak eta mutilak, aztertzerakoan, Sexologiaren ikuspuntua hartzen badugu, 'sexuez' hitz egingo dugu. Kromosomen konbinaketarekin (XX eta XY ohiko bikoteak) gure biografien lehen adreiluak ezartzen dira eta hainbat prozesu biologikoen gain, gure aukerek, hezkuntzak eta bizipenek munduan mutil edo neska izateko dugun modua zehaztuko dute, gure sexualitatea, alegia. Sexualitateak

gizon eta emakumeon biografiak dira, sexudunak garenez gero.

Biografia horiek probetxuzkoak izan daitezten, bizipen positiboak izateko aukerak egin behar ditugu. Horretarako, gure buruak eta gorputzak ezagutu behar ditugu, eta onartu. Ondokorak ezagutu behar ditugu, eta onartu, baita ere.

Egun, 'politikoki zuzena' ren trankiz bizi dugu errealitatea. Eta hezkuntza ez da salbuespena. Sexu Hezkuntza, eskola curriculumean derrigorrezko edukia da baina zehar-lerroa den neurrian, eraginkorra den hezkuntza-aren alorra baino, aitzakia bihurtu dugu. Gauzak ongi egiten ari garenaren sentipena eta lasaitasuna izateko aitzakia. Ikastetxe batzuk harro sentitzen dira sexuen hezkuntzarako zenbait ordu gorde dituztelako; eta beharbada, 16 urteko ikastalde batek, sei ordutan landu du sexu hezkuntza. Hori, askok jasotzen dutena baino askoz gehiago bada ere, ez guke pentsatu behar horrekin gazteen biografia sexualetan eragin handia izango dugunik. Nork espero du sei ordutan, historia, ingeleseko edo matematika nahikoa ezagutzea?

Kitzikapena ulertzea eta ongi bizi-tzea, gorputzaren aldaketak umore onez jasatea (nerabezaroan, helduaroan, zahartzaroan...), desira kudeatzea (desio dugunarekin zer egin erabakitzea), amatasuna eta aitatasuna aukeratzea, bikote harreman alaiak sortzea, sexukidea edota senar edo emaztea urteetan seduzitzen jarraitzen jakitea, maitasun hausturei aurre egitea, jelskortasunarekin elkarbizitzea... ez da egiteko makala. Hori gutzia ahal den

erarik osasuntsu eta alaienean bizitzeko gakoak sexuen hezkuntzak ditu.

Nondik hasi?

• Haur eta gazteek egiten dituzten galderei erantzun behar diegu. Egia esan behar diegu. Gezurrak erantzutearekin ez ditugu babesten.

1. adibidea. 'Haurrak nola sortzen dira?' [...Egokiena, aita eta ama izan nahi delako sortzea da... Aitaren zakila amaren baginan sartzen da... Horrek plazer handia ematen du...].

2. adibidea. 'Hazia nora doa?' [...Gehienetan, mutilak masturbatzean, haziak zapi batean bukatzen du. Beste batzutan, kondoiaren barruan... Kasu zehatz batzuetan, sexukidearen baginan...].

• Neskak eta mutilak euren gorputzak esploratzera animatu behar ditugu. Euren gorputzak eta horien erreakzioak ezagutzea ezinbestekoa da bizipen positiboak izan ditzaten. Nesken kasuan, bagina eta bulba hain agerikoa ez direnez, ahalegin handiagoa egingo dugu ezagut ditzaten. Anomiako laminak oso lagungarriak dira.

• Norbere existentziaren zentzua aurkitzea oinarritzkoa da. Horrek, neska izateaz harro sentitzea eta mutila izateaz, harro sentitzea esan nahi du. Mutil eta neska izateko eredu anitzak aurkeztu behar dizkiegu, duinak direla adieraziz.

1. adibidea. 'Luma'dun mutilak, adierazteko era 'afeminatua' dutenak, duinak dira.

2. adibidea. Bideojokoekin jolastea atsegin duten neskak, neska errespeta-garriak dira.

- Garen bezala maitatuak izatea da neska edo mutil orok, emakume edo gizon orok behar duguna. Maitasun hori ahalbidetzea da gure lana: familiak maitatzea, lagunak maitatzea, bikoteak maitatzea... Horretarako, gure gazteek maite dituzten pertsonak errespetatu behar ditugu.

- Biluztasuna onartzea oso garrantzitsua da. Biluzik egoteko leku eta une aproposak aukeratzen irakatsi behar diegu, eta biluzik ongi sentitzen. Emakumezkoen gorputza hedabideen bitartez asko erotizatu da eta edertasunari lotuagoa dago. Gizonena berriz, batez ere, zakila, barrabilak eta bertako biloa itsusiztat hartu izan dira. Gizonen gorputzaren edertasuna ukatzeak, mutilek duten gorputz irudia negatiboagoztat jotzea eragin dezake. Hori ekidin behar dugu.

- Jantzera aukeratzen dutenean, euren burua adierazten ari direla argi izan behar dugu.

1. adibidea. Neska bati gonarik ez ipintzeagatik kritika egiten badiogu, bere izaera onartzen ez dugula adierazten ari gara. Eta berdin, titi-artea agerian ibiltzeagatik kritikatzeko badugu.

2. adibidea. Kolore arrosa duen arropa aukeratzeko libre sentitzeko aukera eman behar diegu.

- Mutikoak eta neskatoak, txiki-txikitik maitemin daitezke, eta sentimendu onargarria dela jakinarazi behar diegu, horrela, euren bizipenak ulertzen saia daitezke eta irrika hobeto biziko dute.

- Muxuak, laztanak, besarkadak... onartuak eta partekatuak direnean, adin guztietan afektuzko adierazpenak dira. Hanka sartze handia da txikien edo helduen arteko adierazpen horien aurrean arriskua, beldurra, nazka edo lotsa adieraztea. Posible da guk geuk jasotako dugun heziketarengatik, modu horretara bizitzea, baina, gure jarreraren bitartez sentimendu negatibo horiek transmititzen baditugu, erotofobia sustatzen ari garela jakin behar dugu. Hau da, gu ereduztat gaituzten horiengana, sexualitateen bizipen ezkorra eragiten ari garela.



- Bizitza proiektu sendoa aukeratzen lagundu behar diegu. Horretarako neska edo mutila izatea mugatzat jo gabe aritu behar dugu. Izan nahi duten lanbidea, egin nahi dituzten kirolak, nahi duten familia eredua, gustuko dituzten bikotekideak, amesten dituzten maitasun harremanak... aukeratzen

lagunduko diegu euren itxaropenak errealistak izan daitezen lagunduz.

- Ingurua aztertzeke jarrera sustatu behar dugu: telebista, zinema, publizitatea, abestiak, bideojokoak, irudiak, ohiturak... aztertzeke irizpideak eman. Zer funtzio betetzen dute emakumeek medio horietan? Eta gizonen? Nolako gizon edo emakumea izan nahi duzue zuk?

Konfiantzazko sexu aholkularitza zerbitzuak hemen topatuko dituzu:

>>> www.gaztezulo.com

>>> www.goxoki.com

Nola ikustarazi dakieke gurasoei haur eskolek betetzen duten funtzio asistentzialaz gain, haien funtzio hezitzaileak garrantzi handia duela



Heziketa, haurrak jaiotzen direnetik, era orekatuan eta goiztiartasun faltzurik gabe, haien gaitasunak kanpora gidatzearen ezagutza da. Baina, kon-tuan izan behar da heziketa, naturaz eta funtzioz, asistentzialtasunarekin aurrez aurre dagoela. Laguntza, pobreak, behartsuari eskaintzen zaio. Hari eskaintzen zaio karitatea sorospen dei baten aurrean. Geure kontzientzia lasaitzeko eman nahi den gutxienekoa da. Izan ere, asistentziala dena, heziketa-ikuspegiaren kontra, baliabide urriak dituen haurtzaroren iruditik abiatzen da. Irudi horren arabera, haurrak, txikia delako (eta gero eta txikiagoa, ahulagoa) gutxierekin asebate behar du, minimoarekin asebate behar du.

Asistentziala denak, ohol leun baten antzerakoa den eta asetu behar diren behar ugari dituen hauraren aurrean kokatzen gaitu. Asistentzialtasunak minimoa eskaintzen die, egiazki maximoa jaso beharko luketenei: xahutze ekonomikoa eta kulturala da, gizakia-ren heziketa-perfekzioa mesprextzen du eta sustraitik ezabatu beharko



Alfredo HOYUELOS

FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIETAN DOKTORE
EUROPARRA, BERRIOZARKO UDAL HAUR ESKOLETAKO
ZUZENDARIONDOKOA ETA NAFARROAKO UNIBERTSITATE
PUBLIKOKO IRAKASLEA.

litzateke.

Asistentzialtasunak, haurra eskubiderik gabeko subjektu gisa ikusten du, ezinbestean. Haurra, soilik, arreta eta zainketa behar dituen izaki objektu bat da, eskubiderik eta adierazteko aberastasunik ez duena. Asistentzialtasun antzuak, gorpila ixten du haren inguruan. Dena hor amaitzen da. Ez dago besterik. Gizateriarenganako begirune eta

arreta faltaren ikurra da.

Asistentziala, haurrak txikiak direnean familia batzuei eta gizarteari azkar atsegin ematen dien nonahiko erredua da, eta hori da, hain zuzen ere, duen arriskua. Politikariek eskuak garbitzea ahalbidetzen du zerbitzu horiek, finean, boturako garrantzirik gabeak balira bezala hartzen direlako. Horren guztia-ren atzean haurren eskubideekiko begirunerik eza dago, zeina gero eta txiki-go izan, bere etimologia gehiago azpimarratzen duen (infans=hitz egiten ez duena). Jesús Palaciosen dioen modura, “ikerketek argi utzi dute heziketa maila baxuagoa duen familiak, behar dutenean, errazago konformatzen direla aukera asistentzialarekin, kultura maila altuagoa eta diru sarrera handiagoak dituzten familiak aukera hezitzaileekin ahalegintzen diren bitartean”.

Eta, hemen, galdera sortzen da: nola komunikatu familiei (guztiei) jaiotzetik zentroen garrantzi hezitzailea (inoiz ez asistentziala)?

Parte hartzea, konfiantza, empatia eta etika. Eskola atsegina

Has gaitezen anekdota esanguratsu batekin.

Bartzelona. Loris Malaguzzi, hizlaria. Hitzaldiaren amaieran maistra batek eskua altxa du. "Nola lantzen duzue Reggio Emilian identitatearen, gorputz eskemaren edo nortasun prozesuaren formazioa?". Malaguzzik: "Onena da, eskolako sukaldariak tarta eder bat prestatzen duela zentroko aiton-amoneni jaten emateko". Erotu egin al da? Inolaz ere. Azter ditzagun haren hitzak harreman estetikoak harilkatuz. Geure nortasuna, elkarren mendeko alderdi askoren konplexutasunean osatzen da. Geure nortasunaren eraikuntzak zerikusia du besteek ezagutzen edo ikusten gaituzten moduekin. Geure burua ezagutzeko erak nortasuna ematen digu, eta hori, besteek nola ikusten, estimatzen eta kontuan hartzen gaituztenaren araberakoa da. Nafarroan ikusi dut zenbait aitonek eta amonek aulkitxo batean edo haur-kotxe batean lo dagoen haur batengana gerturatzeko direnean horrelakoak esaten dituztela: "gaixoa!". Ez dut uste horrelakoen atzean arrazoi ekonomikoak daudenik, ezta krisi garaietan ere. Hori baino sakonagoa da. Haur txikiaren irudiaren gutxiespenarekin du zerikusia. Ahul, ahalmenik gabe ikusten den haurra, aberastasunik eta potentzialik gabe. Gauregun, oraindik ere, batez ere bularreko haurren taldeetan, aiton-amonak batzuek euren bilobek soilik pixa, kaka eta lo egiten dutela uste dutela ikusten dut. Haur eskoletan merezi duen ezer egin gabe entretenez garetela. Eta mesfidantzaz begiratzen gaituzte euren haurrak alferrik "bahitzen" ditugula pentsatuz.

Ezagutza falta da, eta batez ere, konfiantza falta. Gurean, laguntasuna sortzeko, lasai hitz egiteko eta gozatzeko dugun erarik ohikoenetako bat, elkarrekin bazkaltzea da. Pedagogiak asko du ikasteko gastronomiatik. Horretarako ezinbestekoa da haur eskolek sukalde propioa edukitzea.

Baina, itzul gaitezen tarta goxo horretara. Aiton-amonak abegi onez hartzen baditugu, tarta estimatzen eta das-

tatzen badute eta sabela betetzen badute, haurren gaitasun inteligente apartei buruz hitz egiteko komunikazio arrakastatsu baterako oinarriak sortuko ditugu. Aiton-amonak hori ulertuko dute eta bilobei buruz duten irudia alda dezakete, haiengan potentzial handiagoa ikus dezakete. Horrek eragina du, jakina, nortasunaren eraikuntza prozesuan. Ondorioak iradokitzailea eta probokaitzailea dirudi: programazio gutxiago eta tarta edo janari gehiago behar da familiekin eskola barnean partekatzeke. Eta hori ez da teoria.

Familiekin dugun harremanak eskolen eguneroko bizitzan eta bizitza instituzionalean haien parte-hartzea ikusteko era jakin baten zati izan behar du. Jarduera demokratikoaren aseguru da. Parte-hartzea ezin da erankin baten modura, proiektuari berari, didaktikari, itsatsitako zerbaiten modura ikusi. Gainerakoaz gain egin beharreko zerbaiten modura. Parte-hartzea, funtsean, oinarrikoa eta egiturazkoa den zerbait da, ezin da ez gehigarria ez aukerazkoa izan. Uste dut, heziketa balioren mailara igo nahi dugun edozein ideia, prozesu eta ekintza praktikoa, behar dela eztabaidatu eta hitz egin behar dela familiekin eta herritarrekin. Parte-hartzea ezin dugu hartu, taxonomikoki, haurrekin egon ondoren egin beharreko zerbaiten modura. Uste dut heziketa-jarreraren abiapuntua dela. Ego-kia da eskoletan beharrezkoak diren kudeaketa organuen parte-hartze unen instituzionalizazioa, baina heziketa-jarrerari buruz hitz egiten dudanean ikasgelek (ikaslega bakoitzak), sarre- rek, pasilloek, sukaldeek, maisu-maistrek, laguntzaileek, eskolazainek eta abar parte-hartzearen ideia zabaldu eta gauzatu behar dutela esan nahi dut. Izan ere, hori gabe, nire iritziz, heziketak eskolako paretetatik ihes egiten du, ezinbestean. Pertsona bakoitzak heziketa-ekintzaren partaide izatea eskatzen du. Eta, parte-hartzeak (behar eta eskubide bezala), beste gauza batzuen artean, pertsona bakoitza bizi deneko eta jarduten dueneko sistemaren zati gisa onartua izan daitekeela esan nahi

Asistentzialtasunak, haurra eskubiderik gabeko subjektu gisa ikusten du, ezinbestean. Haurra, soilik, arreta eta zainketa behar dituen izaki objektu bat da, eskubiderik eta adierazteko aberastasunik ez duena. (...) Gizateriarenganako begirune eta arreta faltaren ikurra da.



du. Parte-hartzea, haien elkartrukeetan askotariko eta partekatutako esanahiak bilatzen dituzten subjektu guztien elkarrenganako konfiantzan oinarritzen da.

Nire ustez, eskola txikiak dira (konfiantza saihesten duten arauak jartzea errazagoa den makroeskoletan ez bezala) parte-hartzea gauzatzeko aukera gehien eskain dezaketenak. Baina ohitura txarra dugu: pentsatzen dugu, erosotasunagatik, hobe dela haurra eskola instituzio batean sartzeko, posible bada bi urterekin, eta bertatik 16 edo 18 urte dituenen ateratzea. Makroegitura horiek errazago justifikatzen dute antolaketa zurruntasuna (ilarak, familiek zentroan ezin sartzeko, haurra eskolatik ateratzeko baimenen beharra...). Zurruntasun hori, desiragarria den parte-hartzeko informalismoaren (kafe bat hartzeko leku atseginak, festak, sarrera eta irteeretan harremana izatea...) etsaia da eta une horiek familia eta pertsona batzuentzat instituzionalizatutako parte-hartze unek baino garrantzitsuagoak eta konstruktiboagoak dira (bilerak, Guraso elkarteak edota Eskola Kontseilua).

Giro eta espazio atseginak izatea, atea zabalik izatea (haurrak, batzuetan, ilara militarretan eskolatik sartzeko eta ateratzeko kanpoan abandonatuak izatearen ideien kontra), gardentasu-



Familiekin dugun harremanak eskolen eguneroko bizitzan eta bizitza instituzionalean haien parte-hartzea ikusteko era jakin baten zati izan behar du. Jarduera demokratikoaren aseguru da.

na, zentzora erraz sartzea (batez ere Haur Hezkuntzan), ordutegiaren malgutasuna... haurren familien partaidetzaren (eta ez harriduraren) zentzua bultzatu edo oztopa dezaketen elementuak dira. Komunitate bateko partaide kontzienteki sentitzeak bizitasun eta segurtasun emozional sententzia sortzen du, eta horrek, haurrei eta helduei nortasun pertsonalaren eta nortasun sozialaren eraikuntzan laguntzen die.

Gero eta gehiago ikusten dut guraso askok haiek entzuteko duten beharra, babestuta sentitzea enpatia oinarria topatzeko duten beharra. Agian, orain, familia sareak (batez ere immigranteekin eta guraso bakarreko etxeko ugartzearekin) eskasagoak dira. Lotura emozional horiek sortzen direnean errazagoa da eskolaren alderdi hezitzaileak (eta ez instruktiboak) komunikatzeko oinarria sustatzea.

Egia da eskolak terapia bulego bat bihurtzeko arriskua duela eta hori ez dela bere funtzioa. Baina parte-hartzea proiektu batean oinarrituz, enpatia, konfiantza eta etika eraikitzeaz hitz egiten ari naiz. Etika, Humberto Maturana biologo txiletarrak hitz egiten digun zentzu sakonean ulertuta: "Ardura etikoa, egiten ditugun gauzekin edota kide gareneko komunitateak egiten dituen gauzekin, besteei gertatzen zaizkien gauzak inporta zaizkigunean sortzen da. Baina besteari gertatzen zaionagatik arduratzeko, bestea ikusi egin behar dut eta ikusteko, maitatu egin behar dut". Ulerkuntza gizatiar eta erres-

petuzko horretatik, pertsonen espazio eta denbora nahikoa eskaintzen dute eskolaren heziketa-ideiak ulertzeko eta batez ere, seme-alabak beste era batera entzuteko.

Dokumentatu eta gehiago dokumentatu

Errepikatu nahi dut oinarri emozional hori gabe komunikazioa distorsionatu egiten dela gaizki-ulerterak, aurreiritziak eta kutsatutako pertsonen arteko harremanak sortzen dituzten eta beharrezkoak ez diren soinuekin.

Hortik abiatuta, segurtasun gehiagorekin aktiba ditzakegu familiekin, informazio eta konfrontazio (eta ez enfrontamendu) era estrategikoak.

Baina esperientziak erakutsi digu, gure ideiak komunikatzeko, eta, batez ere, horiek partekatzeo, erabakigarria den zerbait ezinbestekoa dela: dokumentazioa (badira beste batzuk ere, ezinbestekoak direnak, heziketa-bikotea adibidez, baina artikulua honetan ez dut horretan sakonduko).

Dokumentatzeak, haurrekin bizi dugun heziketa-prozesua jasota gertatzea esan nahi du. Estetikoki jasota gertatzea eta ikusi duguna idatziz edo ikusentzunezko euskarri batean jasotzea.

Beharrezkoa dugu, bereziki Haur Hezkuntzan, nortasun propioa eta ezagutzeko moduko nortasuna izango duen eskola eraikitzea. Bide horretan, lan neketsu horretarako ezinbesteko tresna bihurtzen da dokumentazioa.

Dokumentazioa, heziketa-prozesuen jasoketa eta azalpen sistematikoan eta estetikoan datza (idazkien bidez, irudien bidez, panelak, bideoak, haurren hitzak, produktu grafikoak...). Ez da soilik gertatu dena azaltzea (askotariko formatuetan), bizitako kontakutuz jasotzen duen produktu publiko bat eraikitzea baizik.

Dokumentazioa ez da deskribapen bat edo gertatu denaren konstatazio soilak: ez du fideltasunez erregistra daitkeen kanpo egia objektiborik bilatzen. Dokumentazioa esperientzia baten haurrari suposatutako dionaren gaineko interpretazio bat da: zer esan nahi

duen (zergatik eta zertarako) egiten duen hori egiteak. Interpretazioaren (haurrek egoeraren gainean egiten dutena) interpretazio baten bidez egindako esanahiak biltzen eta berreskuratzen ditu. Dokumentazioa, haurrek, interpretatiboki euren ezagutza nola eraikitzen duten hausnartzeko aukera da.

Dokumentazioa ez dugu biltzen artxibo bat sortzeko edo lan eta irudien biltzaile egiteko. Interesatzen zaiguna, azaltzea baino gehiago, haurren kultura hobeto ulertzea da, eta hori familiekin partekatzea, kultura hori zabaldu ahal izateko.

Interpretazioa garrantzitsua da, baina, kalitatezko dokumentu formatu batean gertatu denaren berri emango duen narrazio estetiko batekin amaitu behar du: panela, power point-a, liburuxka, DVD-a...

Narrazioaren bidez, eskolak eguneroko historia eta historia esanguratsua sortzen du, lengoia tekniko ofizialetik urrun. Bere biografia propioa eta kontatzeko modukoak diren istorioak, kontakizunak eta gorabeherak sortzen dituzten protagonisten biografia azaltzen du.

Zerbaiten dokumentazioa egiterakoan, ideal teorikoen eta heziketa praktikaren arteko, gure printzipioen deklarazioaren eta gure ekintzen arteko, gure desioen eta besteen desioen arteko eta gure ulermenaren eta besteen ulermenaren arteko sormenezko harremanak eta harreman koherenteak sortzen dira. Dokumentazioaren bidez, bere egiteko hitzetatik haratago argudiatu nahi duen eskola azaltzen da, pentsatzen duen, hausnartzen duen, bidean ikasten duen eskola: eztabaida publikoaren erdian jartzen dakien heziketa-instituzioa, elkarrenganako konfiantza prozesuak eraikiz demokratiaz entzuteko eta hitz egiteko gai dena.

Eta berriro, hasierara itzuli gara. Hemendik, ia artikularen hasieran planteatu dugun galderaren antzeko galdera berriak sortzeko bidea abiatzen dugu.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

otsaila



berriak

Zientzia eta matematika arloetan emaitza hobeak lortu dituzte ikasleek

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleek hobetu egin dituzte matematiketan eta zientzietan dituzten ezagutzak eta horien erabilpena. Lau urtean behin nazioartean egiten den TIMSS (*Trends in International Mathematics and Science Study*) ebaluazioak utzitako emaitzen arabera, 2003ko datuekin alderatuta, 12 puntu gorago egin dute matematiketan eta 9 puntu gorago zientzietan. Matematiketan, adibidez, 400 eta 475 puntu artean lortu zuten ikasleen kopurua (batez bestekoaren azpitik) % 33tik % 26ra jaitsi da, baina 550 eta 625 puntu artean lortu dutenen kopurua (hau da, batez bestekoaren gainetik) %15etik %21era igo da. 625 puntu baino gehiago lortu dutenen kopurua, berriz, bikaintasun maila, % 1-etik % 2ra igaro da. Azterlanean parte hartu duten 66 herrialdeen artean, 18. postuan daude ikasleak matematiketan, eta zientzietan dagokienez, 20. postuan daude Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleak.

Duela lau urteko azterlanarekin alderatuta emaitzak hobeak dira baina TIMSS delakoak zehaztua duen batez bestekoaren azpitik daude ikasleen emaitzak. Matematiketan 500 puntutan dago batez bestekoa, eta 499 puntu lortu dituzte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleak. Zientzietan 498 puntu lortu dituzte, eta batez bestekoa 500 puntukoa da.

Galderei erantzun eta ariketak egiteko ikasitakoa erabiltzeaz gain, bestelako galdera batzuei ere erantzun behar diete ikasleek: zein den ikasgai horietarako jarrera, ikasten ematen duten denbora, etxean zenbat liburu dituzten, ordenagailurik ote duten... Informazio horren bidez, ikasleen inguru-neak eta ohiturek emaitzekin duten lotura aztertzeko dute ikerlariak, eta 2007ko emaitzek erakusten dutenez, etxean zenbat eta liburu gehiago izan orduan eta emaitza hobeak lortzen dituzte ikasleek.



Matematikako eta zientzietako errendimenduaren eboluzioa.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako DBHko bigarren mailan egin dituzte probak eta hezkuntza eredu guztieta-ko, eta ikastetxe publiko zein itunpeko ikastetxeetako ikasleak aukeratu dituz-

te. Guztira, 2.296 ikasle hartu dute parte TIMSS azterlanean; horietatik % 48 neska eta % 52 mutilak. Ikasleen batez besteko adina 14,1 urtekoa zen.

Euskal Curriculumaren aldeko dinamika abian da

Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak Euskal Curriculumaren aldeko dinamika abiatu du, eta curriculumaren aldeko manifestua egitea eta aurkeztea izan da lehen urratsa. Bi hilabetetan 10.000 atxikimendu lortu nahi dituzte. Bi bide izango dira horretarako: www.euskaleskola.org webgunea

alde batetik, eta herrietan banatuko dituzten atxikimendu orriak, bestetik.

Oinarrizko Hezkuntza Akordioak euskal herritar orok Euskal Herriko curriculum propioaren arabera hezteko eskubidea duela jasotzen du eta eskubide hori urratzen dela salatu du EHBEk. Horren aurrean, 2003an Udaltzarekin, Sortzen-Ikasbatuazekin e-

ta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin sinatutako hitzarmena une erabakigarrian dela azaldu dute EHBEko kideek, curriculum laister esku artean izango dugula azpimarratuz.

Euskal Curriculumaren dinamikak, manifestuaz gain, hainbat ekimen izango ditu, eta EHBEk datozen asteetan emango du horien berri.

Euskal Curriculumaren aldeko manifestua

Nazioarteko hainbat itunetan jasotzen denez, herri guztiek beraien hezkuntza antolatzeko eskubidea dute. Bide horretan, euskaldunok, Oinarrizko Hezkuntza Akordioan hezkuntza sistema nazionala antolatzeko eta egituratzeko eskubidea berretsi genuen. Hala:

1. Aldarrikatzen dut: euskal herritarrok euskal kultura, hizkuntza eta nor-tasunetik abiatzen den hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea dugu. Hori bermatzeko tresna bakarra Euskal Herri osorako sorturiko Euskal Curriculum da. Beronen sorrera txalotu eta honen aplikaziorako estrategia oso baten beharra plazaratzen dut.

2. Salatzten dut: herri gisa onartzen ez gaituzten bi estatuek gure eskoletan frantziar zein espainiar hiritar gisa heztera behar-tzen gaituzte. Curriculum, eduki, irakasgai eta ebaluazio arrotzen (selektibitatea eta baxoa, kasu) inposaketa dira eskubide urra- ketaren adibideak.

3. Nire konpromisoa: belaunaldi berriak euskaldun gisa hezi daitezen, Euskal Curriculumaren beharra aldarrikatuz eta bo- rrokatuz, Hezkuntza Sistema Nazionalaren eraikuntza bultzatuko dut.



Lanbide Heziketa euskalduntzeko hitzarmena sinatu dute

Bizkaiko Ikastolen Elkarteak eta Txorierrri Politeknika Ikastegiak elkarlanean jarduteko hitzarmena sinatu dute. Alde batetik, Politeknika ikastegia Ikastolen Elkartean sartu da, eta bestetik, Ikastolen Elkarte Politeknikaren bazkide laguntzailea izango da. Lankidetzaren helburua, Lanbide Heziketako euskalduntze prozesuan aurrera egitea da. Lanbide Heziketa sustatu nahi dute gainera, "kalitatezko hezkuntza" ematen duelako.

Haurrak babesteko dekretua onartu dute Nafarroan

Haurrak babesteko telebistak bete beharko dituen arauak jaso ditu Nafarroako Gobernuak onartu duten dekretuak. Hurrek informazio plurala eta errespetuzkoa jasotzeko duten eskubidea jasotzen du dekretuak, eta Nafarroako erakundeek adingabeen garapen fisiko, mental eta moralari kalte egiten dioten saioak debekatu ahal izango dituzte. Bestalde, saioak adinaren arabera sailkatu beharko dituzte aurrerantzean.

Nazioarteko agintariekin bildu da Tontxu Campos

Tontxu Campos Hezkuntza sailburua Londresen izan da 65 herrialdeko hezkuntza ministro elkartu dituen bileran. Jim Knight, Britainia Handiko ikastetxe eta ikasle ministroarekin bildu zen eta teknologiarik eta irakaskuntzari lotutako alderdiak aztertu dituzte. Bi ideia nagusi ateratu zituzten bileran: alde batetik, ikasleentzako beharra eta bestetik, teknologiaren eta irakaskuntzaren esparruan praktika onak partekatzeko lan-talde egonkorak sortzea komeni dela.

Bestalde, Kolonbiako 14 ikastetxeko zuzendariak gure artean izan dira urtarrean, Kolonbiako Hezkuntza Nazionalaren Ministerioarekin ankidetza esparruaren baitan. Bost astetan zehar Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntza-sistemari buruzko ikerketak egingo dituzte batez ere alderdi hauetan arreta ipinita: eleaniztasuna, hezkuntza behar berezietako ikasleei eman beharreko arreta edo ingurumen-hezkuntza.



3,2 milioi euro etorkinen hizkuntza programak sustatzeko

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Hezkuntza Sailak 3,2 milioi euroko laguntza onartu du etorkinen hizkuntza programak sustatzeko. Unibertsitate ikasketak eskaintzen ez dituzten itunpeko ikastetxeek jasoko dituzte laguntza horiek eta Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etorkinen hizkuntza programak indartzeko izango dira. Programa horien helburua, ikasle etorkinen artean euskararen ezagutza zabaltzea da.

18 ikastetxeren kudeaketaren bikaintasuna saritu du Eusko Jaurlaritzak


2008an kudeaketaren bikaintasuna saritzeko Eusko Jaurlaritzak zilarrezko eta urrezko Q sariak jaso dituzten 35 erakundeen artean, 18 ikastetxeak dira. Olabide ikastolak, Usabalgo Laskorain ikastolak eta Axular lizeoak urrezko Q-a jaso dute eta zilarrezko Q-a jaso dute 15 ikastetxek: Bilboko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoa, San José Jesuitak ikastetxea, Karmengo Ama ikastetxea, Bilboko Calasancio ikastetxea, La Inmaculada Hijas de Jesús ikastetxea, Indautxuko Kimika eta Elektronika eskola, Tolosako Inmaculada ikastetxea, Fátima-Eslavas del Sagrado Corazón ikastetxea, el Ave María ikastetxea, Santa María-Marianistas ikastetxea, Nuestra Señora del Pilar ikastetxea, Hirubidea ikastetxea, Eskurtze BHI, Gautena eta Resurrección María de Azkue ikastetxea.

Ikastaroak

* **Mind-mapping: buru-mapak** **Noiz:** otsailak 2. **Non:** Barakaldon, "Parque de los Hermanos" egoitza. **Antolatzailea:** Eleder Aurtenetxe. **Izena ematea:** 688 650 682 edo eleder.aurtenetxe@gmail.com. **Informazio gehiago:** <http://burumapak.blogspot.com>

* **Garuna ezagutu hobeto irakasteko** **Noiz:** otsailak 3. **Non:** Bilbon, La Bolsa eraikina. **Antolatzailea:** Hezkuntza II. do Berriak Fundazioa. **Izena ematea:** info@fundacionnce.org edo 902.431.179. **Informazio gehiago:** www.fundacionnce.org

* **Pedagogia sistemikoa** **Noiz:** otsailtik irailera bitartean (150 ordu). **Non:** Bilbon, Psicoespacio. **Antolatzailea:** Formazio eta Terapiarako euskal zentrua. **Izena ematea:** centrovascofy@yahoo.es edo 658 700 718 (Rakel). **Informazio gehiago:** 637 893 079 (Itziar Agirre)



Jardunaldiak

KONSTRUKTIBISMOA eta hezkuntza

Apirilaren 25ean eta 27an DONOSTIAN eta BILBON
Egun bateko saioak: goizez eta arratsaldez

- **Mario CARRETERO.** Madrilgo Unibertsitate Autonomoko (UAM) katedraduna Psikologia Fakultatean. Giza Zientzien Latinoamerikar Fakultateko (FLACSO) ikertzailea Argentinan. Une honetan, AEBetako Harvard unibertsitatean dihardu. Ikerketa ugari egin ditu eta hainbat liburu argitaratu ditu.
- **Lontxo OIHARTZABAL.** EHUko irakasle ohia.
- Euskal Herriko hainbat ikastetxetan egiten ari diren **esperientzia praktikoak.**



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo hilabeteko galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen abenduko eztabaidak utzi diguna...

>>> Euskal Herriko zenbait ikastetxetan ordutegi jarraia dute. Zer iruditzen zaizu ordutegi jarraia hezkuntza etapa guztietara zabaltzea?

> Ikastetxe bakoitzak erabaki beharko luke ordutegia. Herri, hiri, auzo desberdinetan bizi gara, oso egoera anitzetan, gainera. Horregatik, Hezkuntza Proiektua ikastetxe bakoitzeko komunitateak egiten badu, ordutegia ere berak erabaki behar du. Azken finean, ordutegia Hezkuntza Proiektuaren parte bat da, ez besterik. *Marta*

> Askotan esango digutenaren zain egoten gara. Ez da horretarako garaia. Eskola bakoitzak, komunitatea bada behintzat, zer helburu dituen eta hori lortzeko zer antolaketa behar duen erabaki behar du. Eskolaren antolaketan, ordutegiaren banaketak eta ordu horien erabileraren kalitateak zeresan handia dute. Horregatik, formula magikorik ez! Ardua izatea, hausnarketa kolektiboa egitea eta horren arabera jokatzeko da egokiena ondorio egokiak lortzekotan. *Mikel*

> Mikel, esaten duzunarekin guztiz ados nago. Hori posible egiteko, egungo administrazioaren egitura aldatu beharra dagoela iruditzen zait. Nola izango da ikastetxe bakoitza bere buruaren jabe, erabaki gehienak administrazioak hartzen baditu? Eta zer administrazio mota, gainera. Duela bi mende estatuek ezarritako egitura funtzionariala eta zentralizatua... Esan bezala, eta, esaten duzunarekin ados egonda, kontziente naiz zentzuzkoa eta ona den edozer egiteko dauden zailtasunez. *Iker*

> Inork ikusi al du "Muru artean" filma? Gaztelaniazko bertsioa ikusi nuen "La clase" izenpean. Bigarren Hezkuntzako edozein eskoletan gerta litekeen egoera deskribatzen du. Amaieran, hiru baieztapen-galdera interesgarri egiten ditu neska batek. Funtsean, eskolara zertara joaten ote diren galdetzen du. Nondik abiatzen den eta helburua zein den da garrantzitsuena. Ikasleek interesa duten hura aztertzen al da? Gazteen egunerokotasunerako baliagarria dena hartzen al da kontuan? Botere kontua izaten da jokoan dagoena. Gainerakoa... Egoera horrelakoa bada, ordutegiaren eztabaidak ba al du zentzurik? Alderantziz ikusten dut nik. Bere egitekoaz hausnartzeko eta erabakiak hartzeko gai den neurrian, ordutegia azter lezake eskolak, bestela, ez. *Nerea*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Gure ikasgeletan teknologia berriak gero eta leku gehiago hartzen ari dira. Baina, teknologia horiek aukeratzekoan, kontuan hartu beharko al genituzke irizpide pedagogiko, linguistiko eta sozialak?

Partekatze proiektuak

Eskuarteetan proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzea bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidioak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatze aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza aberasteko aukera dugu. Anima zaitzete besteekin PARTEKATZERA!

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Pirritx eta Porrotx sukaldean
Amaia Diaz de Monasterioguren eta
Mitxel Murua
ELKAR

Hurrek egiteko moduko errezetak aurkezten dira liburuan. Pirritxek eta Porrotxek adiskide nutrizionista izan dute lagun: Amaia Diaz de Monasterioguren. Amaiak errezeta osasuntsuak prestatu ditu, egiteko errazak. Eta janariengaineko ipuinak ere tartekatzen dira liburuan, Mitxel Muruak idatziak. Irudiak, Julen Tokerok egin ditu •



Egun beltzetan, jolas beltzak
Fernando Morillo
EREIN

“Egun beltzetan, jolas beltzak” liburuko protagonistak gaztetako gu-dak ekartzen ditu gogora: kanpo eta barru-gudak. Gudaoste garaia du jolas-leku eta ametsak eta komeriak bizi ditu gazte guztien antzera: adiskideen liskarrak, sexuaren tabuak, liderren xarma, zaurien negarrak... Egun beltzetan, jolasa beltza baita •



Idazlana
Antonio Skármeta
IKAS

Antonio Skármetaren *La composición* obraren euskarazko itzulpena aurkeztu digu Ikas-ek, Lucien Etxezaharretak egina. Gazte literaturako liburuak berderatzi urte dituen Pedoren bizitza kontatzen digu, Txilen, diktaduraren garaian. Hainbat gertakariren ondotik, Romo kapitainak agindu idazlan bat idatzi behar du Pedrok... •



Behin batean... alegia
Xabier Susperregi
OIARTZUNGO UDALA

300 alegia baino gehiago jaso ditu Xabier Susperregik liburu honetan, guztiak euskaraz. Hiru ataletan banatu ditu kontakizunak: “Euskal Herriko alegiak”, “Alegialari handiak” eta “Munduko alegiak”. 220 orrialdeko liburua da eta, irudiak, batzuk Andoni Odriozolak eginak dira eta besteak, beste liburu batzuetatik hartutakoak dira •



Hiztegi batua
EUSKALTZAINDIA eta ELKAR
Euskaltzaindia Hiztegi Batua bi alditan egiten ari da. Lehen itzulia 2000an amaitu zen eta forma erabilienak edota hedatuena jaso ziren bertan. Orotara 22.736 hitz onartu ziren. Bigarren itzulian, erabilera urriagoko hitzak jasotzen ari dira eta Hiztegi Batuaren edizio honetan aeta *eroankortasun* hitzen arteko hitz berriak gehitu dizkiete aurrekoei. Gainerakoa, lehen itzulikoa bera da •



Babiloniarrak
Martínez de Antóñana eta Mosquera
SAURE

David pintoregai gaztea eta Messina maisu jakintsua abentura berri batera abiatu dira, Mesopotimako artea helburu hartuta. Iragaranerako bidaiari, Anjela izango dute bidaiari. Jainko zaharren, pertsonaia historikoen eta heroi mitologikoen laguntza jasoko dute, eta abentura oso dibertigarria izango da •

... nora joango gara?

Euskal Ekomuseoa

Euskal Herria pixka bat gehiago ezagutu nahi?

Donibane Lohizunen, XIX. mendeko baserri batean du egoitza Euskal Ekomuseoak. 1999an zabaldu zuten Jean-Vier izeneko dendaren osagarrri, eta ordutik bisita mordoa jaso du. Euskal Herriko tradizioei eta geure kirolei, eskulangintzari, lanbideei, dantzei, sinboloei eta abarrei buruzko hainbat xehetasun ezagutzeko aukera eskaintzen du museoak, ordubeteko ibilbidearen bidez. Kontalari batek lagunduko du geure bidea baserrian barna. Atea zabalik da...

Izarra likoreari buruzko historia entzungo dugu, hasteko, eta likorea dastatzeko aukera ere emango digute Euskal Ekomuseoko arduradunek.

Aurrera jarraituz gero, Euskal Herriko herri bat topatuko dugu. Biriatuko pilotalekuaren errepresentazioa aurkituko dugu aurrez aurre, eta bi pilotari

jokoan. Aitzakia polita, pilotan jokatze-ko erak zein diren azaltzeko: pareta bakarra, ezker pareta eta lau pareta. Alboan, gizon bat xisterak egiten ikusiko dugu, eta pilotak nola egiten diren ere ikusiko dugu.

Trikitixa doinuek lagunduta pasatuko gara hurrengo gelara. Eskulangintza izango da hurrengo arretagunea. Zahatoen gainean hitz egingo digute, eta lehena Hendaian egin zela entzungo dugu. Hasierakoak ahuntz larruarekin egiten zirela azalduko digu kontalariak, eta horrek zapore berezia ematen ziola ardoari. Ondoren, latexa sartu zuten eta horrek ez zion zaporerik ematen. Horrela joan zirengaraten zahatoak, gaur egun arte. Zahatotik nola edaten den ere azalduko digute.

Baina, euskaldunei buruz ari gara, ezin da txapelik falta. Txapelaren historiari buruz hitz egiten digute; jatorriz, Pirinioetakoa dela diote, eta artzaintzatik datorrela. Luzaz, artile kolorekoak izan zirela aipatuko digute, eta ondoren tindatzen joan zirela, gaur

egun bezala, kolore batekoak edo beste-koak ak lortu arte.

Eta jakina, espartinei buruz ere arituko dira. Ahotsak, etxean egoteko erabiltzen direla edo jendeak eguraldi ona egiten duenean jantzen dituela azalduko digu. Muga isil-isilik eta hotsik atera gabe pasatzeko erabiltzen zirela garai batean: "kontrabandistak izan baikara hainbat urtean", azalduko du ahotsak, eta gaineratuko duazienda, kafea edota txokolatea kontrabandoan pasatzen zela mugaren alde batetik bestera... Baina mugari ere, mugaren zentzua kendu nahiko diote: "Zer da muga, beste aldean dena senide badugu?", dio kontalariak.

Aurrera eginez, eliza eta herriko etxea topatuko ditugu ondoren. Herriko etxeko plazan dantza egiten zela azalduko digu bidelagun dugun ahotsak, eta, dantzei, inauteriei edota pastorei buruz hitz egiteko aitzakia eskainiko dio horrek. Euskal Herriko dantzetan egun arrunt bateko irudiak ikus daitezkeela dio, eta Zuberoako



maskaradei buruz ari dela, bitxikeria bat ere entzungo dugu: Napoleonen armadan maisu bihurtu ziren dantzariak ekarri zutela kantinera jantzia Euskal Herrira.

Sinboloei buruz arituko dira ondoren. Ikurrinaren sinbologia adieraziko dute lehenik, eta Arana Goiri anaiek sortu zutela diote, eta nortasun ikur gisa euskaldunon batasun espirituala adierazten duela. Lauburuari edota hilarriei buruz ere arituko zaigu kontalaria.

Jakiei buruz ere ikas dezakegu Euskal Ekomuseoan. Piperrak banaka soka jarri eta zintzilik lehortzen jartzen direla esango digu ahotsak, eta urriaren azken igandera arte egoten dira zintzilik. Horrekin batera, taloari buruzko azalpenak emango dizkigute.

Lapurdiko bi etxe motak zein diren azalduko digute ondoren, eta euskal makilak ere badu bere tokia. Horrek aitzakia emango du Euskal Herrian hainbat egur mota daudela esateko, eta eskulangileen erremintei buruz aritzeko. Apaingarriak ere aipatuko dituzte, eta, gehienetan, eguzkiaren mugimendua irudikatzen dutela zehaztuko digute.

Bisita amaitzean da eta etxe barnea ikusteko aukera izango dugu orain. Euskal Herrian etxea familia guztiarena dela azpimarratzen dute, eta geure herrian gauaz babestu egiten garela, izaki gaiztoen eta misteriotsuen unea delako: lamiak, Basajaun... Mari Lurraren ama dela azalduko digute.

Eta etxean lihozko oihalak etxea apaintzeko erabiltzen zirela aitzakia hartuta, lihoari buruz arituko dira. Idiek marradun oihalak eramaten zituzten, zazpi marrarekin apainduak, eta marra bakoitzak Euskal Herriko herrialde bakoitza ordezkatzeko du. Eta hori bera egiten dute Jean-Vier dendako oihaletan; guztiek zazpi marra dituzte, antzinako idi oihalen antzera.

Amaitu da bisita, eta Euskal Herria pixka bat gehiago ezagutzeko aukera izan dugu Euskal Ekomuseoan. Orain, nahi izanez gero, bertako dendetan erosketaren bat egin dezakegu, edo, bestela, kanpoko inguru paregabeaz gozatu.

EUSKAL EKOMUSEOA

RN 10 – Iparraldeko irteera
64500 DONIBANE LOHIZUNE (Lapurdi)
Telefona: (0033) 05 59 510 606
www.ecomusee.com
ecomusee.basque@wanadoo.fr



Oharrak:

- Bisitak ordubetekoak izaten dira.
- Bisitak euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz edo ingelesez egin daitezke.
- Prezioak:
 - Haurrak (5-12 urte): 2,50 euro.
 - Helduak: 6 euro.
 - Taldeak (10 pertsonatik gora): 4,80 euro.

Jarduerak:

- Ekomuseora bisita.



atzeko atetik



Andoni AGIRREGOMEZKORTA

AKTOREA

Ezagutzen nauzuen gehienok telebistan ikusteaz ezagutuko nauzue, telebistan umorea egiteaz hain zuzen ere. Eta zuekin telebistaren bitartez edo aurrez aurre nagoen bakoitzean umorez edo umoreari buruz hitz egiten dudanez, gaur eman didaten aukera gauza serioago bati buruz hitz egiteko aprobetxatu nahi dut. Barka nire hitzekin barre egitea espero bazenuten, baina gaur nire barrua apur bat hustu behar dut.

Azken urteetan moda berri batsortu da ikastetxeetan. Duen izen ingelesa, behintzat, berria da gure artean, baina ez hainbeste gertaera bera: *bullying*-az ari naiz. Emakumeen aurkako erasoekin gertatzen den bezala, adin gutxiko-

Umorearen atzetik egon izan da negarrik

en arteko erasoak beti gertatu dira. Nik ere, jasan nuen halakorik ikastola garaian, eta lotsa handiz esan behar dut, noizbait, erasotzaile ere izan nintzela. Ez nuke esango haurtzaro zoriongabea izan nuenik, baina bai ez zela behar bezain zorionsua izan, neurri batean jasan izan nituen iseka eta erasoengatik.

Zorionez, betidanik gertatzen den arren, gaur egun behar duen garrantzia ematen ari zaio gaiari, baina, oraindik ere, batzuek halako gertakariren bat entzutean haurren arteko gauzak direla esan dezakete, garrantzirik gabekoak direlakoan. Nik, ordea, ez nuen horrela sentitu, ez dut horrela sentitzen eta ziur nago, garai hartan gertatutakoa nire izaeran eragina izan zuela, betirako. Haurren artean horrelakoak gertatzen direnean hezitzaileen (irakasleen eta gurasoen) porrotaren aurrean aurki gaitezke, inguruan gauden heldu guztien porrotaren aurrean; ez ikusiarena egiteagatik, garrantzia ez emateagatik, edo gure seme alabak besteekiko

errespetuan ez hezteagatik.

Gure haurrek, gure seme-alabek erasoak jasatea nahi al dugu? Traumaz beteta haztea nahi al dugu? Eta zer irudituko litzaiguke gure haurrak erasotzaileak izatea? Eskola garaiak, garai zorionsua behar luke, jolasteko eta ikasteko garaia. Beraz, erne egon gaitezen, jakin dezagun gure haurrak erasotuak edo erasotzaileak diren, eta bila ditugun konponbideak, lasaitasunez, luze hitz eginez. Haurrak besterik ez dira, baina biharko helduek gaurko haurren heziketa izango dute oinarri. Eta, gure haurrei, erasoak jasaten badituzte, ahal den maitasun guztia eskaini beharko genieke, eta egoera horiek saihas daitezke eta, batez ere, gainditzen direla azaldu. Gertuago beste adibiderik aurkitzen ez baduzue, nire kasua kontatu. Bai, nire egoeran izatea oso gogorra eta tristeza izan daiteke, baina, aizue, egon lasai, hori ere sahiestu eta gainditu daiteke eta. Besarkada bat, eta begiratu beti aurrera!



Novara herrian, Italian, ikasle etorkin asko dituzten eskoletan ikasten duten haur eta gazte italiarrek autobus eta jangela zerbitzuak doan izango dituzte, guraso askok, etorkin kopuru altuaren ondorioz seme-alabak eskola horietatik ateratzea erabaki ondoren. Torinon ere, neurriak hartzekotan dira auzi bera dela-eta.

Iturria: Efe albiste agentzia, 2009-1-16.

ikastolak

etorkizuna ereiten



Ikastolen Elkartea

www.ikastola.net

Euskal Eskola Publikoa

Urtez urte
hazten dira.
**Baita euren
eskola ere.**

Etorkizunerako prestakuntza

Ezagutza teknologikoak

Eleaniztasuna

Balore integratzaileak



**Aurrematrikulak
Otsailaren
2tik 13ra**

Euskal Eskola Publikoa:
Hobera egin du baliabideetan,
berrikuntzan eta kallitatean



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA GARA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN